

Estatutu Sozialak

ZABALDUZ

**Lan elkartuko eta gizarte
ekimeneko sozietate
kooperatiboa**

2022ko martxoaren 12an egindako Batzar Nagusian onartutako testua

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. IZENA, XEDE SOZIALA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA	4
1. artikulua. Izena	4
2. artikulua. Xede soziala	4
3. artikulua. Egoitza soziala	5
4. artikulua. Iraupena	5
5. artikulua. Lurralde eremua	5
II. KAPITULUA. BAZKIDEAK	6
1. SEKZIOA. SOZIETATE ONARPENA	6
6. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak.....	6
7. artikulua. Onartzeko baldintzak	6
8. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak.....	6
9. artikulua. Onarpen prozedura	7
10. artikulua. Onartzeari edo ez onartzeari buruzko ebazpenen aurkako errekurtsoak.....	7
2. SEKZIOA. SOZIETATE BAJA	8
11. artikulua. Borondatezko baja	8
12. artikulua. Nahitaezko baja	8
13. artikulua. Bajaren ondorioak eta errekurtsoak.....	9
3. SEKZIOA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	10
14. artikulua. Betebehar eta eskubide sozialen hasiera.....	10
15. artikulua. Bazkideen betebeharrak	10
16. artikulua. Bazkideen eskubideak	11
17. artikulua. Informazio eskubidea	11
18. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidearen mugak eta bermeak.....	12
4. SEKZIOA. ESZEDENTZIAN DAUDEN BAZKIDEAK, BAZKIDE EZ-AKTIBOAK ETA LAGUNTZAILEAK	13
19. artikulua. Eszedentzian dauden bazkideak.....	13
20. artikulua. Bazkide ez-aktiboak.....	13
21. artikulua. Bazkide laguntzaileak	13
5. SEKZIOA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUAK	14
22. artikulua. Falta motak.....	14
23. artikulua. Falta sozialak	14
24. artikulua. Falta sozialengatiko zehapenak.....	15
25. artikulua. Zehapen prozedura	16
26. artikulua. Kanporatzea	16
6. SEKZIOA. BARNE ARAUBIDE FUNTZIONALA	17
27. artikulua. Oinarrizko elementuak.....	17
III. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORGANOAK	19
28. artikulua. Organo sozialak	19
1. SEKZIOA. BATZAR NAGUSIA	19
29. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak.....	19
30. artikulua. Motak	20
31. artikulua. Deialdia.....	20
32. artikulua. Funtzionamendua.....	21
33. artikulua. Boto eskubidea.....	22

34. artikulua. Gehiengoaren araubidea	23
35. artikulua. Batzar Nagusiaren akta	23
36. artikulua. Erabakiak inpugnatzea	24
2. SEKZIOA. KONTSEILU ERREKTOREA.....	24
37. artikulua. Izaera eta eskumenak.....	24
38. artikulua. Osaera, izendapena eta agintaldia.....	27
39. artikulua. Funtzionamendua.....	28
40. artikulua. Kontseilukideen betebeharrak eta erantzukizunak.....	29
41. artikulua. Erantzukizun akzioa.....	30
42. artikulua. Erabakiak inpugnatzea	31
3. SEKZIOA. ZUZENDARITZA	31
43. artikulua. Zuzendaritza	31
4. SEKZIOA. ZAINZA BATZORDEA	32
44. artikulua. Osaera, izendapena eta agintaldia.....	32
45. artikulua. Eskumenak	32
46. artikulua. Funtzionamendua.....	33
IV. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA	35
47. artikulua. Erantzukizuna	35
48. artikulua. Kapital soziala	35
49. artikulua. Nahitaezko ekarpenak.....	36
50. artikulua. Borondatezko ekarpenak	37
51. artikulua. Ekarpunen interesa	37
52. artikulua. Ekarpenak eguneratzea.....	37
53. artikulua. Ekarpunen transmisioa.....	37
54. artikulua. Ekarpenak itzultzea	38
55. artikulua. Sarrera kuotak	39
56. artikulua. Beste finantzaketa batzuk	39
57. artikulua. Soberakin garbiak.....	40
58. artikulua. Soberakin eskuragarrien banaketa.....	40
59. artikulua. Nahitaezko funtsak.....	40
60. artikulua. Borondatezko funts banaezinak.....	41
61. artikulua. Galerak egoztea.....	41
V. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA.....	43
62. artikulua. Dokumentazio soziala	43
63. artikulua. Kontabilitatea	43
64. artikulua. Kontu auditoretza.....	43
65. artikulua. Urteko kontuen gordailua.....	44
66. artikulua. Letradu aholkularia	44
VI. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA.....	45
67. artikulua. Kooperatiba desegiteko arrazoiak eta erabakia.....	45
68. artikulua. Likidazioa	45
69. artikulua. Sozietatearen ondasunak esleitzea.....	46
AZKEN XEDAPENAK	47
LEHENENGOA. Arbitraje kooperatiboa.....	47
BIGARRENA. Delituak prebenitzeko eredia eta segimendua egiteko mekanismoak.....	47
HIRUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistari gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak	47
LAUGARRENA. Bigarren mailako kooperatiban integratzea.....	47
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	48

BAKARRA. Zaintza Batzordea..... 48

I. KAPITULUA. IZENA, XEDE SOZIALA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA

1. artikulua. Izena

Zabalduz Gizarte Ekimeneko Sozietate Kooperatiboa izenarekin, lan elkartuko eta gizarte ekimeneko kooperatiba bat eratzen da, Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, printzipioen eta xedapenen arabera; baita aplikatu beharreko gainerako lege aginduen eta Estatutu Sozial hauen arabera ere.

2. artikulua. Xede soziala

ZABALDUZ, KOOP. E-ren helburu nagusia esku hartze sozialaren ereduan eta gizartean aldaketa sustatzea da, pertsonaren eta bere bizitza kalitatearen errespetua eta ongizatea, jarduera ekologiko, jasangarri, garden eta hurbila bilatuz, eragiten duen komunitatean, eragile publiko ezberdinekin eta gizarte zibil antolatuekin lankidetzan. Horretarako, ZABALDUZ, KOOP. E.k egingo dituen jarduera batzuk honako hauek izango dira:

- Bazterketa arriskuan edo/eta babesgabetasun egoeran dauden adingabe eta gazteen bizitza proiektua bideratu, definitu eta finkatzea ahalbidetuko duten ostatu eta bizikidetzako proiektu integralak (gizarte eta hezkuntza arlokoak, terapeutikoak...).
- Laguntza programak eta egoitza inklusiorako programak, bizileku baldintza eskasetan edo kalean bizi diren, baztertuta dauden edo gizarte laguntza eskatzen duten adin nagusikoentzat.
- Birgizarteratze sozial edo/eta lan arloko programak eta laguntza programak bazterketa arrisku egoeran dauden pertsonentzat.
- Ingurumen hezkuntzako programak pertsonen garapenerako, prebentzio jardueren eta garapen komunitarioarekin lotutako estrategien bidez ingurumen arazoekiko kontzientzia eta soluzio egokiak sortuz.
- Osasunerako hezkuntza programak bizi ziklo osoan zehar, eguneroko bizitzaren arlo guztietan eraginez (osasuna, eskola, komunitatea...) eta ikuspegi positibo eta integralarekin, bizimodu osasungarriak sustatzeko jardueren bidez.
- Familia eta komunitateko esku hartze programak, familia hezkuntza, gurasotasun positiboa eta laguntza psikosoziala eskainiz familia eta pertsonen bizitzako etapa guztietan zehar.
- Garapenerako lankidetzaren arloko programak, ekonomiaren eta gizartearen aurrerabidean eragina dutenak.

Jardute eremuari eta egindako esku hartzei buruzko ezagutza sortzea eta partekatzea, prestakuntza, ikerketa eta hedapen jarduerak sustatuz.

3. artikulua. Egoitza soziala

Sozietatearen egoitza Hernaniko (Gipuzkoa) Ibaiondo industrialdeko 27. zenbakiko 4. solairuan dago, eta udalerrri horretan bertan aldatzeko erabakia hartu ahal izango du Kontseilu Errektoreak, Estatutu Sozialak aldatzeko tramiteak bete gabe.

4. artikulua. Iraupena

Sozietatea denbora mugagaberako sortzen da.

5. artikulua. Lurralde eremua

Kooperatibaren lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Horrek ez du esan nahi, ordea, sozietateak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jardun ahal izango ez duenik.

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

1. SEKZIOA. SOZIETATE ONARPENA

6. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak

Bat. Bazkide langile izan daitezke bertan kontratatzeko eta lana egiteko gaitasuna duten pertsona fisiko guztiak, Kooperatiban lanpostu bat eskuratuta.

Bi. Era berean, Kooperatibaren parte izan ahalko dira eszedentzian dauden bazkideak, bazkide ez-aktiboak eta bazkide laguntzaileak, Estatutu Sozial hauetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

7. artikulua. Onartzeko baldintzak

Bat. Bazkide langileen kopurua mugagabea da, eta Kooperatibarekiko sozietate lotura mugagabea edo iraupen jakinekoa izan daiteke, lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa; iraupen mugatuko bazkideak eta besteren konturako langileak ezin izango dira bazkide langile mugagabeek urtean egiten dituzten ordu guztien ehuneko berrogeita hamarrera iritsi.

Bi. Pertsona bat bazkide langile gisa onartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Lan prestazioa kontratatzeko gaitasuna izatea.
- b) Estatutu Sozial hauen edukia eta indarrean dauden gainerako akordioak formalki onartzea.
- c) Zuzendaritzaren aldeko txostena izatea, eta Kontseilu Errektoreari helaraztea.

8. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak

Bat. Kontseilu Errektoreari dagokio bazkideak onartzeari buruzko erabakia hartzea.

Bi. Bazkideak onartzeko erabakiak soilik arrazoi justu eta funtsatuak direla-eta mugatu ahal izango dira; horien artean:

- a) onartzeko ezarritako baldintza objektiboak ez betetzea,
- b) Kooperatibaren zuzendaritza, administrazio, antolaketa eta funtzionamendurako behar diren bazkide berrien behar objektiboak ez betetzea,
- c) Batzar Nagusian bazkide mota guztien proportzio egokiari eustea komeni izatea.

Onarpena ezin izango da onartu edo ukatu, xede sozialari dagokionez, diskriminazioa dakarten arrazoiengatik.

Hiru. Sozietate kontratuak probaldi bat aurreikusi ahal izango du. Probaldiaren iraupena sei hilabetekoa izan daiteke, eta gehienez ere hemezortzi hilabetera luza daiteke, baldintza profesional bereziak eskatzen dituzten lanpostuez ari bagara. Lanpostu horiek ezingo dira izan lanpostu guztien %20 baino gehiago.

Probaldi horretan zehar:

- Kooperatibak eta probaldian dagoen pertsonak harremana eten dezakete aldebakarreko erabaki librea hartuta.
- Probaldian dagoen pertsona ezin izango da organo sozialetako karguetarako aukeratu izan.
- Probaldian dagoen pertsonak ez du ekarpena egiteko ez sarrera kuota ordaintzeko derrigortasunik izango.
- Probaldian dagoen pertsonari ez diote Kooperatibaren emaitzek eragingo, positibo zein negatiboak izan, alde horretatik soldatapekoei aitortutako eskubide berari kalterik egin gabe. Probaldian dauden bitartean ez die eragingo Kooperatiban egondako galeren egozpenak.

Probaldirik ez da egongo langilea lehendik probaldian egon bazen eta probaldi hori bazkide gisa hasi gabe gainditu bazuen.

Lau. Era berean, pertsona bat bazkide langile mugagabe gisa onartzen den unean, Kooperatiban nahitaez eman beharreko denbora hiru urtekoa izango da gehienez.

9. artikulua. Onartzeko prozedura

Bat. Bazkide gisa onartua izateko eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark gehienez ere hirurogei eguneko epean emango du ebazpena, eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Bi. Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesdunari, eta arrazoitua izango da ukatzeko ebazpena ematen bada. Aipaturiko epea berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, onartzea erabaki dela ulertuko da.

Hiru. Kontseilu Errektoreak bere erabakia -onartzekoa izan ala ez- Kooperatibako ohar taulan argitaratu beharko du.

Lau. Iraupen jakineko bazkide langileen kasuan, egoera horretan hiru urte daramatenean, iraupen mugagabeko bazkide izateko aukera izango dute, eta aldi hori bost urtekoa bada, betiere iraupen mugagabeko bazkide izaera izango dute, eta Kontseilu Errektoreak kasu horietarako Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatutakoaren arabera jardungo du.

Kasu horretan, iraupen jakineko sozietate kontratuan, bazkideak iraupen mugagabeko bazkide izateko duen eskubidea agertu beharko da, eta jasota utzi beharko da iraupen jakineko sozietate kontratua indarrean egonik eta haren lotura bost urtera iritsi baino lehen gauzatu beharko duela.

10. artikulua. Onartzeari edo ez onartzeari buruzko ebazpenen aurkako errekurtsioak

Bat. Ez onartzeko erabakiaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango du eskatzaileak Batzar Nagusian, jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasi eta hogeitun eguneko epean. Egiten den lehenengo Batzar Nagusiak ebatziko du errekurtsioa, interesdunari entzun ondoren, isilpeko bozketa bidez.

Bi. Onarpen erabakiaren aurka, gutxienez bazkideen %10ek egin ahal izango dute errekurtsioa Batzar Nagusian, erabakia egoitza sozialeko eta lantokietako iragarki oholean argitaratzen denetik zenbatzen hasi eta hogeitun eguneko epean.

Egiten den lehenengo Batzar Nagusiak ebatziko du errekurtsua, interesdunari entzun ondoren, isilpeko bozketa bidez.

Hiru. Bazkide izaera eskuratzea etenda geratuko da onarpena errekurritzeko epea igaro arte edo, onarpena errekurritu bada, Batzar Nagusiak errekurtsua ebatzi arte.

2. SEKZIOA. SOZIETATE BAJA

11. artikulua. Borondatezko baja

Bat. Bazkide orok bere borondatez baja har dezake Kooperatiban, edozein unetan, Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazita, pertsona fisikoentzat hiru hilabete lehenago eta pertsona juridikoentzat urtebete lehenago, justifikatutako eta objektiboki egiazta daitekeen arrazoirik ezean.

Bi. Borondatezko bajak justifikatuak eta justifikatu gabeak izan daitezke.

Hiru. Honako hauek justifikatu gabeko borondatezko bajatzat hartuko dira:

- a) Kontseilu Errektoreari zuzendutako baja eskaeraren aurreabisu aldia ez betetzea eta berariaz itundutako gutxieneko iraunaldia ez betetzea, salbu eta Kontseilu Errektoreak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontrakoa erabakitzen badu; horrek ez du esan nahi, ordea, hartutako konpromisoak betetzea eta kalte-galeren ordaina ematea eskatuko ez denik.
- b) Bazkideak egingo dituen jarduerak kooperatibaren jarduerekin lehian daudenean.

Lau. Justifikatutako borondatezko bajatzat hartuko dira:

- a) Kooperatibaren bat egite edo zatiketa kasuan, mota aldaketaren kasuan, sozietatearen xedearen funtsezko aldaketaren kasuan edo kapitalari nahitaezko ekarpen berriak egitea eskatu den kasuan, dagokion erabakiaren aurka bozkatu duen bazkidearena, edo, Batzar Nagusira joan ez arren, bat egiteko erabakiaren azken iragarpenetik berrogei eguneko epean erabaki horrekin ados ez dagoela adierazi duen bazkidearena.
- b) Kooperatiba beste sozietate mota batean eraldatuz gero, abenduaren 20ko 11/2019 Legeak banantzeko eskubidea ematen dion bazkidearena.
- c) Justifikatu gabekotzat jotzen diren gainerako borondatezko baja guztiak.

12. artikulua. Nahitaezko baja

Bat. Bazkideen nahitaezko bajarako arrazoiak honako hauek dira:

- a) bazkide izateko eskatzen diren lege edo estatutu betekizunak galtzea
- b) iraupen jakineko sozietate loturarako hitzartutako aldia amaitzea
- c) kapital sozialera egin beharreko ekarpenei buruzko betebeharrak ez betetzea
- d) Batzar Nagusiaren erabakia, ekonomia, teknika, antolaketa eta ekoizpenarekin lotutako arrazoietan edo ezinbesteko arrazoietan oinarritua

- e) legez ezarritako adinean erretiroa hartzea
- f) ezintasun iraunkor osoa
- g) ezintasun iraunkor absolutua
- h) baliaezintasun handia
- i) heriotza

Bi. Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, interesdunari entzun ondoren, ofizioz, edo beste bazkideren batek edo eragindako pertsonak berak eskatuz gero.

Hiru. Nahitaezko bajak justifikatuak eta justifikatu gabeak izan daitezke.

Lau. Nahitaezko baja justifikatutzat joko da honako kasu hauetan: bazkide izateko baldintzak galtzea ez bada bazkidearen borondatearen ondorio, hau da, Kooperatibarekiko betebeharrak ez betetzearen edo nahitaezko bajaren bidez bidegabeko onura lortzearen ondorio, eta ondoko atalean jasotako kasuan.

Bost. Ekonomia, teknika, antolamendu eta ekoizpenarekin lotutako edo ezinbesteko egoera larriak direla eta, Kooperatibaren bideragarritasunari eusteko, lanpostuen edo kolektibo zein talde profesional jakin batzuen kopuru globala behin betiko murriztu behar bada, Batzar Nagusiaren eskumena izango da Kooperatiban baja hartu behar duten bazkide langileen kopurua eta identitatea zehaztea.

Kargua uzten duten bazkide langileek eskubidea izango dute kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenak berehala itzultzeko eta nahitaezko ekarpenak gehienez ere bi urteko epean hilerio jasotzeko; gainera, betetzen zuten lanpostuaren antzeko lanpostu berriak sortuz gero, baja hartu eta hurrengo bi urteetan itzultzeko lehentasunezko eskubidea izango dute. Hala ere, kooperatibak baliabide ekonomiko objektibagarriak baditu, nahitaezko ekarpenen itzulketari uneko ekitaldi ekonomikoan egin beharko da.

Bazkide langileak itzultzeari uko egin dakiekeen ekarpenen titularrak badira eta kooperatibak ekarpen horiek berehala itzultzea erabakitzen ez badu, Kooperatiban jarraitzen duten bazkide langileek berehala eskuratu beharko dituzte ekarpen horiek, Batzar Nagusiak erabakitzen duen moduan.

Sei. Nahitaezko baja justifikatu gabekotzat joko da gainerako kasuetan, salbu eta Kontseilu Errektoreak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontrakoa erabakitzen badu.

13. artikulua. Bajaren ondorioak eta errekurtsioak

Bat. Bajak kalifikatzea Kontseilu Errektorearen eskumena da.

Bi. Kalifikazioari edo baja ematearen ondorioei buruzko ebazpenekin ados ez dagoen bazkideak, baja borondatezkoa izan zein nahitaezkoa izan, errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Batzar Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik hogeita hamar eguneko epean. Egiten den lehenengo Batzar Nagusiak ebatziko du errekurtsioa, interesdunari entzun ondoren, isilpeko bozketa bidez.

Hiru. Kontseilu Errektorearen erabakia betearazlea izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten den unetik edo errekurritzeko epea igaro ondoren. Erabakia betearazlea ez den bitartean, bazkideak Batzar Nagusian boto eskubidea izaten jarraituko du.

Lau. Borondatezko zein nahitaezko bazkide langile izateari uzteak Kooperatiban lan egiteari behin betiko uztea dakar.

3. SEKZIOA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

14. artikulua. Betebehar eta eskubide sozialen hasiera

Bat. Betebehar eta eskubide sozialak onarpen erabakia hartu zen egunetik aurrera hasiko dira ondorioak izaten, errekurritzen denean izan ezik; kasu horretan, etenda geratuko da Batzar Nagusiak ebatzi arte, isilpeko bozketa bidez eta interesdunari entzun ondoren.

Bi. Bazkide langile izateko izangaiek, probaldian, bazkide langileen eskubide eta betebehar berberak izango dituzte, Estatutu Sozial hauetan kasu horietarako araututako berezitasunekin.

15. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Hona hemen bazkideen betebeharrak:

- a) Batzar Nagusiaren eta deituak izan diren gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguren baterako hautatzen badituzte, onartzea, salbu eta ez onartzeko bidezko arrazoi bat dagoen kasuetan.
- c) Kooperatibako organo sozialek balioz onartutako akordioak betetzea.
- d) Kooperatibaren xedea osatzen duten jardueretan parte hartzea. Horretarako, gutxienerako arau hau ezartzen da:
 - Bazkide langileentzat: Kooperatiban edo Kooperatibarekin lankidetzan diharduten edo parte hartzen duten beste erakunde batzuetan egiten den edozein lan, baldin eta helburu sozialari lotutako interes bereziren bat badago, edozein lantokitan, non eta ez dagoen Kontseilu Errektoreak salbuesteko arrazoi justifikaturik. Nolanahi ere, beste erakunde batzuetan parte hartzen duten Kooperatibako bazkideak gutxiengoan egongo dira jatorrizko kooperatiban, salbu eta arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, ekoizpenekoak edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta enpresak hala behar duenean.
 - Bazkide laguntzaileentzat: Kooperatibaren esanetara egotea, xede soziala garatzeko eta hobetzeko agintzen zaizkien eginkizunak betetzeko, onarpen erabakiarekin bat etorritik.
- e) Bazkideak bere gain hartzea bazkide izaeratik eratorritako betebehar ekonomikoak.
- f) Kapital sozialerako ekarpenak xedatutako baldintzetan ordaintzea.
- g) Galeren egozpena onartzea, Batzar Nagusiak erabakitako zenbatekoan.
- h) Kooperatiban giro sozial egokia eta adeitasunezko elkarbizitza sortzen laguntzea.
- i) Kooperatibarekin lehian sartzen den jarduerarik ez egitea eta halakoak egiten dituenari ez laguntzea, Kontseilu Errektoreak berariazko baimena ematen ez badio behintzat.
- j) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, baldin eta horiek zabaltzeak interes sozialak kaltetu baditzake.

- k) Kooperatibaren izena zikintzen duen adierazpen publikorik ez egitea.
- l) Lege eta estatutu arauen ondoriozko gainerakoak, bai eta Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakietatik eratorritakoak ere.

Bi. Betebehar sozialak lege eta estatutu arauen arabera beteko dira, bai eta Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakien arabera ere.

16. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Hona hemen bazkideen eskubideak:

- a) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzea, eta kargu horietarako hautatuak izatea.
- b) Batzar Nagusian eta kide diren gainerako organoetan erabakiak hartzeko proposamenak egitea eta horietan parte hartzea, hitzarekin eta botoarekin.
- c) Kooperatibako jarduera guztietan parte hartzea, diskriminaziorik gabe.
- d) Eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko beharrezko informazio guztia jasotzea.
- e) Barne ordenamendu juridikoaren aldaketak sustatzea.
- f) Kapital sozialerako ekarpenak eguneratu eta itzultzea, hala badagokio, eta baita sortutako interesak jasotzea ere.
- g) Kooperatiban lan egitea, iraupen jakineko sozietate lotura iraungi arte edo erretiroa hartu arte, eta horri dagokion ordainsaria jasotzea.
- h) Lege eta estatutu arauen ondoriozko gainerakoak, bai eta Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakietatik eratorritakoak ere.

Bi. Eskubide sozialak lege eta estatutu arauen arabera baliatuko dira, bai eta Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakien arabera ere.

17. artikulua. Informazio eskubidea

Bat. Bazkide guztiei Kooperatibaren egoerari buruzko informazioa eman ahal izango zaie, eta eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kooperatibaren Estatutu Sozialen kopia bat eskatzeko eta, hala badagokio, baita Barne Araudiarena ere.
- b) Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiaren Akta Liburua aztertzeko, eta Batzar Nagusiaren aktaren eta han hartutako erabakien kopia ziurtatua eskuratzeko, bai eta Bazkideen Erregistro Liburuan egindako inskripzioen ziurtagiria ere, betiere aurretik eskaera arrazoitua eginda.
- c) Indibidualki eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzea.
- d) Eskubidea Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren egoera ekonomikoari buruzko informazioa eman diezaion, eskaera egin eta gehienez ere hilabeteko epean.
- e) Kooperatibaren jardueren edo emaitzen berri izateko, beharrezko argibideak edo txostenak eskatu ahal izango dizkio, idatziz, Kontseilu Errektoreari. Informazio hori idatzizko eskaria aurkeztu, eta hamabost egun igaro ondorengo Batzar Nagusiaren lehenengo bileran eman beharko zaio.
- f) Urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena jasotzen dituzten dokumentuak eskuragarri izateko egoitza sozialean, deialdiaren epean azter daitezten, Batzar Nagusian, gai zerrendaren arabera, ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar denean.

- g) Kontseilu Errektorearen kudeaketa txostena eta, hala badagokio, kanpoko kontu auditoretzaren txostena aztertzeko, egoitza sozialean eta Batzar Nagusiaren deialdiaren epean. Halaber, hala badagokio, Zaintza Batzordearen txostenak bazkideen eskura egon beharko du.
- h) Aipatutako dokumentazioari buruzko azalpenak idatziz eskatzeko, gutxienez bost egun lehenago, Batzar Nagusiaren ekitaldian erantzun daitezten.

Bi. Aurreko atalean ezarritakoari kalterik egin gabe, gutxienez boto sozialen %10 ordezkatzeko dituen bazkide kopuru batek idatziz eskatu ahal izango du, une oro, beharrezkotzat jotzen duen informazioa. Kontseilu Errektoreak idatziz eman beharko du eskatutako informazioa, gehienez hogeita hamar eguneko epean.

Hiru. Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren aldagai sozioekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei edo haiek ordezkatzeko dituzten organoei, gutxienez hiru hilean behin eta egoki ikusten dituen bideak erabiliz.

18. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidearen mugak eta bermeak

Bat. Kontseilu Errektoreak modu arrazoituan uko egin ahal izango dio informazioa emateari, baldin eta eskaera ausartegia edo oztopatzailea bada, edo informazio hori emateak arrisku larriaren jartzen baditu kooperatibaren interes legitimoak. Ez da halako salbuespenik izango baldin eta ukatzen den informazioa Batzar Nagusian eman beharrekoa bada eta bertaratutako eta ordezkatzeko boto guztien erdiak baino gehiago azaltzen badira eskatutako informazio hori ematearen alde. Beste kasu guztietan ere ez da halako salbuespenik izango hala erabakitzen badu Batzar Nagusiak, eskaera egiten dutenek errekurtsioa jarri ondoren.

Bi. Nolanahi ere, eskatzaileek inpugnatu egin ahal izango dute Kontseilu Errektorearen ukoa, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean xedatutakoaren arabera.

Hiru. Beraz, berme sistema hau ezartzen da:

- a) Informazioa eskatzen duten bazkideek informazio eskaera oro sinatu beharko dute, behar bezala identifikatuta eta eskaeraren azalpen arrazoitua emanda.
- b) Gutxienez bazkideen %20k izenpetzen badute informazio eskaera, Kontseilu Errektoreak eskaerari ezetz ematea erabakitzeke bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko da.

Kontseilu Errektoreak hartutako ezeztatze akordioa Batzar Nagusiaren aurrean errekurritua izan daiteke, akordioa jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean. Errekurtsioa egiten den lehen Batzar Nagusian ebatzi behar da, isilpeko bozketa bidez. Nahitaezkoa izango da interesdunari edo interesdunari aurrez entzutea.

Lau. Oro har, bazkideen informaziorako eskubidea errespetatzeko berme hauek ezartzen dira, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak ezarritako baldintzetan:

- a) Kontseilu Errektorea da bazkideen informaziorako eskubidea bermatzeko organo eskumenduna.

- b) Kontseilu Errektoreak Estatutu hauetako Bat atalean xedatutako kasuetan bakarrik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoiak emanda, eta aipatutako atalean jasotako salbuespenarekin.
- c) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak edo beste lege batzuek eta Estatutu hauek xedatutako mugak baino ez ditu izango bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko.
- d) Eskatutako informazioa formatu elektronikoan bidali ahal izango da.
- e) Informazioa eskaeran erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da, baldin eta eskatzaileak berariaz horrela egiteko eskatu badu.

4. SEKZIOA. ESZEDENTZIAN DAUDEN BAZKIDEAK, BAZKIDE EZ-AKTIBOAK ETA LAGUNTZAILEAK

19. artikulua. Eszedentzian dauden bazkideak

Bat. Eszedentzian dauden bazkideak dira bazkide langile gisa Kooperatiban aldi baterako jarduteari uzten diotenak, aldeztu aurretik eskaera idatzia eta arrazoitua eginda, Kontseilu Errektoreari edo Zuzendaritzari zuzenduta, barne erregulazioaren arabera, eta halakotzat onartuak izan direnak. Erabaki horretan zehaztuko da zenbat denboran ez duen bazkideak jarduera kooperatibizaturik egingo.

Bi. Eszedentzian dauden bazkideek bazkide langileen eskubide berberak izango dituzte, honako hauek izan ezik, egoera horretan dauden aldirik:

- a) Ez da eskubiderik izango kooperatibako organo sozialetako kargu baterako hautatua izateko.
- b) Ez da lan aurrerakinik jasotzeko eskubiderik izango.

20. artikulua. Bazkide ez-aktiboak

Gutxienez hiru urteko sozietate antzintasuna duten bazkideek, edozein arrazoi justifikatuz Kooperatiban behin betiko lan egiteari uzten badiote, sozietate izaerari eutsi ahal izango diote, honako arau hauen arabera:

- a) Kontseilu Errektoreari eskatu beharko diote, bazkide langile gisa baja hartzen dutenetik aurrera, eta hark ebazpen arrazoitua emango du.
- b) Kontseilu Errektoreko kide izan daitezke.
- c) Kooperatibaren martxari buruzko informazioa jasotzeko eta Batzar Nagusian parte hartzeko eskubidea izango dute, bazkide langileen botoen %20 gainditu gabe.
- d) Kapital sozialerako ekarpenen zenbatekoa gutxitu ahal izango dute, baldin eta Estatutu Sozial hauetan ezarritako nahitaezko gutxieneko ekarpenaren azpitik geratzen ez badira.
- e) Gainerako eskubide eta betebeharrak bazkide aktiboek aplikatzen zaizkien irizpide berberetan arabera baliatuko dira.

21. artikulua. Bazkide laguntzaileak

Bat. Bazkide laguntzaileak pertsona fisiko edo juridikoak dira, publiko zein pribatuak, lan elkartua zuzenean eman ezin badute ere, helburu soziala lortzen lagun dezaketena, bai gizartearen eta kooperatibaren eremuan, bai arlo tekniko-enpresarialean.

Bi. Bazkide laguntzaileak onartzeko erabakiak Kontseilu Errektoreari dagozkio, eta epe jakin baterako onartu ahal izango dira. Erabaki horietan, lankidetzaren baldintzak eta gainerako eskubide eta betebeharrak espezifikoki ezarriko dira. Hala ere, Estatutu Sozial hauetan bazkideentzat araututako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta espezifikoki eta hitzartutako lankidetzarekin bateragarriak badira.

5. SEKZIOA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUAK

22. artikulua. Falta motak

Bazkideek egin ditzaketen diziplina urraketak bi falta motatan banatzen dira:

- a) Falta sozialak: kooperatibaren ordena instituzionalarekin zerikusia duten ekintza edo ez-egite guztiak, Estatutu Sozial hauetan arautzen direnak.
- b) Laneko faltak: lana egitearekin zerikusia duten ekintza edo ez-egite guztiak, Barne Araudian arautzen direnak.

23. artikulua. Falta sozialak

Bat. Falta sozialak, duten garrantziaren, transzendentziaren eta ondorioen arabera, arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

Bi. Honako hauek dira falta sozial arinak:

- a) Kooperatibaren ordena eta garapen egokirako ezarritako arauak ez betetzea.
- b) Ezjakintasun barkaezinagatik, Kooperatibaren estatutu, erregelamendu eta funtzionamendu arauak, behin gutxienez, ez betetzea.
- c) Justifikatutako arrazoirik gabe, ekitaldi sozialetara ez joatea, eta bereziki Batzar Nagusira, deialdia jaso ondoren.

Hiru. Hauek dira falta sozial astunak:

- a) Falta arinak behin baino gehiagotan egitea, urtebeteko epearen barruan.
- b) Behar bezala deitutako Batzar Nagusira justifikaziorik gabe ez joatea, bazkidea azken hiru urteetan falta arinagatik bi aldiz zigortu badute.
- c) Kargu sozialen baterako aukeratua izan ondoren, kargu hori ez onartzea edo dimisioa ematea, edo kargua arduraz ez zerbitzatzea, Kontseilu Errektorearen iritziz arrazoi justifikaturik gabe.
- d) Estatutu Sozial hauetan xedatutako betebeharrak ekonomikoak berandu betetzea.

Lau. Hauek dira falta sozial oso astunak:

- a) Falta sozial astunak behin eta berriz egitea, urtebete baino gutxiagoko epean.
- b) Organo eskudunek balioz hartutako erabakiak nabarmen ez betetzea.
- c) Estatutu Sozial hauetan xedatutako betebeharrak larriki edo behin eta berriz ez betetzea.

- d) Organo sozialetako kideei eta Kooperatibako gainerako ordezkariari, modu nabarmenean, begirunerik ez izatea.
- e) Kontseilu Errektoreari edo Kontseiluko edozein kideri dagozkion funtzioak hartzea.
- f) Kooperatibaren oinarri sozialen aurkako oposizio sistematikoa eta proselitismo publikoa.
- g) Kapital sozialerako ekarpenetan iruzur egitea.
- h) Sozietate izaeraz baliatzea espekulazio jarduerak edo legeen aurkakoak egiteko.
- i) Lehia jarduerak.
- j) Kooperatibaren gutunen edo dokumentu erreserbatuen sekretua urratzea, eta isilpean gorde beharreko datuak arrotzei jakinaraztea.
- k) Erakundearen sekretuak urratzea, erakundearen interesak larriki kaltetuz.
- l) Kargua utzi ondoren ere, Kontseilu Errektoreko kide gisa sekretu profesionala ez gordetzea.
- m) Datu garrantzitsuak ezkutatzea, tresnei, bazkidearen kualifikazio profesionalari edo, oro har, ekoizpen prozesuari dagokionez.
- n) Kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin dituen harremanetarako garrantzitsuak diren agiriak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsutzea.
- o) Kooperatibako beste bazkide edo langile batzuei hitzez edo egitez tratu txarrak ematea, organo sozialen bileretan edo sozietatearen xedea garatzeko beharrezkoak diren lan, jarduera edo eragiketak egitean.

24. artikulua. Falta sozialengatiko zehapenak

Bat. Falta sozial arinengatik, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

- a) Idatzizko kargu hartzea.
- b) Botoa emateko eskubidea gehienez urtebetez etetea.
- c) Une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren %10erainoko diruzko zehapena.

Bi. Falta sozial astunengatik, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

- a) Bat ataleko aurreko guztiak.
- b) Idatzizko ohartarazpena, Kontseilu Errektoreak hala iritziz gero publiko egin daitekeena.
- c) Botoa emateko eskubidea etetea, gehienez ere 2 urtez.
- d) Kargu sozial bat betetzeko ezgaitzea, elkarren segidako hurrengo bi hauteskundeetan.
- e) Une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren %25erainoko diruzko zehapena.

Hiru. Falta sozial oso astunengatik, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dira:

- a) Bat eta Bi ataletako aurreko guztiak.
- b) Botoa emateko eskubidea etetea, gehienez ere 3 urtez.
- c) Une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren %50erainoko diruzko zehapena.
- d) Kanporatzea.

25. artikulua. Zehapen prozedura

Bat. Bazkideei diziplina sozialaren arloko zehapena soil-soilik ezar dakieke Estatutu Sozial hauetan tipifikatutako arau hausteengatik.

Falta sozialak direla-eta zehapenak ezartzea Kontseilu Errektorearen eskumena da, eta aurretik dagokion espedienteak irekiko da.

Falten espedienteen bi ale beteko dira dokumentu guztietan, eta horietako bat kooperatiban artxibatuko da.

Bi. Karguen orria instruktore batek edo gehiagok formulatuko dute –gehienez hiruk–. Instruktoe horiek Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu bere kideen artean, eta erruztatutako bazkideari jakinaraziko diote faltaren behin-behineko kalifikazioa, dagokion zehapen proposamena eta deskargu epea –gutxienez 10 eguneko izango da jakinarazpena egiten denetik–.

Deskargu orria hautazkoa da bazkidearentzat, eta Kontseilu Errektoreari zuzenduko zaio. Kontseilu Errektoreak, interesdunari entzun ondoren, hurrengo bileran hartuko du erabakia, 30 eguneko epean, deskargu orria aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta faltaren kalifikazioa eta behin betiko zehapena ezarriko ditu. Kontseilu Errektoreak ez badu deskargu orria xedatutako gehieneko epean ebatzen, oso-osorik onartzen dela ulertuko da.

Hiru. Kontseilu Errektoreak falta astunak eta oso astunak egiteagatik hartutako zehapen erabakien aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusian, jakinarazi eta 30 eguneko epean. Eragindako pertsonen inpugnatu egin ditzakete Batzar Nagusiaren ebazpenak, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean xedatutako prozesu tramitearen bidez.

Lau. Falta arinak hilabetera preskribatzen dira, astunak bi hilabetera eta oso astunak hiru hilabetera.

Preskripzio epea falta egin den egunetik hasiko da zenbatzen. Faltak jarraituak edo etengabeak badira, epea arau haustearen jokabidea amaitu zenetik hasiko da zenbatzen.

Preskripzio epea eten egiten da zehapen prozedura hasten denean, interesduna jakinaren gainean egonda, eta berriro hasten da ustezko erantzuleari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik espedienteak geldirik badago, lau hilabete baino gehiagoz ebazpenik eman edo jakinarazi gabe.

Bost. Zehapen guztiak betearazleak izango dira, dagokion errekurtsioa aurkezteko epea erabili gabe amaitu edo behin betiko epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera.

26 artikulua. Kanporatzea

Bat. Kontseilu Errektoreak bakarrik erabaki ahal izango du bazkide bat kanporatzea, Estatutu Sozial hauetan xedatutako falta sozial oso astunagatik edo Barne Araudian xedatutako falta soziolaboral oso astunagatik, horretarako bideratutako espedientearen ondorioz eta interesdunari entzunda; hori guztia aurreko artikulua Bi paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Bi. Kontseilu Errektoreak, bazkideren bat kanporatzea erabakiz gero, erabakia hartu ondorengo hamabost egunetan jakinaraziko dio bazkideari.

Erabaki horren aurka, interesdunak errekurtsua jarri ahal izango du Batzar Nagusian, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean. Errekurtsua Batzar Nagusiak ebatziko du egingo duen lehenengo bileran, isilpeko bozketa bidez eta interesdunari entzun ondoren. Beraz, interesdunak Batzar Nagusian egon beharko du. Kanporatzeko erabakia, behin Batzar Nagusiak berretsita, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean inpugnatu ahal izango da. Horretarako, 11/2019 Legean araututako prozesu bideari jarraitu beharko zaio.

Hiru. Kanporatzeko erabakia betearaztekoa izango da Batzar Nagusiak berrespena jakinarazten duenetik edo errekurtsorako epea amaitzen denetik, errekurtsua jarri ez bada.

Lau. Aurreko atalean aurreikusitakoari kalterik egin gabe, bazkide langileari bere lan prestazioa eten ahal izango zaio, Kontseilu Errektoretik kanporatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik aurrera, eta lan aurrerakina jasotzeko eskubidea gordeko zaio behin-behinean, bere lana egiten ariko balitz bezala.

Bost. Lan prestazioarekin zerikusia duen kanporatzea (falta soziolaborala) Batzar Nagusiak aurreikusitako eta onartutako falta oso astunagatik bakarrik egin ahal izango da. Bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du lan arloko jurisdikzioan, behin barne errekurtsuak agortuta. Hala, kaleratze gutunarekin pareka daiteke kanporatze erabakiaren jakinarazpena.

6. SEKZIOA. BARNE ARAUBIDE FUNTZIONALA

27. artikulua. Oinarrizko elementuak

Bat. Lanaren antolaketari eta ordainsariari dagokienez, honako hauek dira:

- a) Kontseilu Errektoreari dagokio lanaren antolamendua eta diziiplina betearaztea eta praktikan aplikatzea, eta zuzendari gerenteari eskuordetu ahal izango dio.
- b) Kooperatibak bazkide langileak erabiliko ditu lehentasunez, eta, besteren konturako langileak kontratatu behar baditu, kopuruak ez ditu legezko mugak gaindituko.
- c) Hilean behin, bazkide langileek lan aurrerakinak jasoko dituzte. Aurrerakin horiek ezingo dira izan, inola ere, lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak, ez eta sektoreko soldatapeko langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak, lanbide jardueraren eta kategoriaren arabera, ezartzen dituen ordainsarien ehuneko 150 baino handiagoak ere. Hori guztia urteko zenbaketan.
- d) Lan aurrerakinak kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura ordaindutako aldizkako ordainsariak dira, eta, beraz, ez dira soldatatzat hartuko. Ondorioz, haien maila kuantitatiboa emaitzen arabera izango da, eta itzulketa egin ahal izango zaie, ekitaldiko emaitzak baino zenbateko handiagoan ordaindu direnean eta Batzar Nagusiak hala zehazten duenean, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren mugarekin, lanaldi osoko bazkide langileentzat, eta murrizketa proportzionala lanaldi osoa baino lanaldi txikiagoa duten bazkide langileentzat.
- e) Kooperatibako bazkide langile guztiak dagozkien lan aurrerakinak jasotzeko sailkatuko dira, betetzen duten lanpostuaren eta Kooperatibari ematen dioten benetako zerbitzuaren arabera. Horri dagokionez, lanpostuak lan indizeen arabera sailkatuko dira. Estatutu Sozial hauetan zehaztu ez den guztian, enpresan indarrean dagoen ordainsari eremuan jasotakoa hartuko da kontuan.

- f) Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu lan aurrerakinak, urtean lan egin beharreko orduak eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 105. artikuluan aipatutako gainerako alderdiak, ahal dela, Kooperatibaren egoera ekonomikoaren arabera, eta, subsidiarioki, sektore bereko edo inguruko enpresetan aplikatutakoen pareko irizpideekin.

Bi. Pertsona fisikoei dagokien fiskalitatea bazkide langileen kontura izango da, eta Kooperatibak ezingo du inola ere subrogatu.

Hiru. Bazkide langileen Gizarte Segurantzako estalduraren ondorioetarako, Kooperatibak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorra aukeratzeko du.

III. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORGANOAK

28. artikulua. Organo sozialak

Honako hauek dira Kooperatibaren organo sozialak:

- Batzar Nagusia
- Kontseilu Errektorea
- Zaintza Batzordea, kooperatiba ehun bazkidera iristen denean

1. SEKZIOA. BATZAR NAGUSIA

29. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak

Bat. Batzar Nagusia bazkideen bilera da, beren eskumeneko gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratua.

Batzar Nagusiaren erabakiek hartzen diren egunetik aurrera izango dituzte ondorioak, eta bazkide guztiak behartzen dituzte, disidenteak eta ez daudenak barne.

Bi. Batzar Nagusiari bakarrik dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- a) Kontseilu Errektorea, Zaintza Batzordea (halakorik dagoenean) eta likidatzaileak izendatzea eta ezeztatzea, isilpeko bozketan, bai eta pertsona horien guztien aurkako erantzukizun akzioak baliatzea ere.
- b) Kontu auditoreak izendatzea eta ezeztatzea, tartean bidezko arrazoirik badago.
- c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena adostea.
- d) Nahitaezko ekarpen berriak ezartzea, kapital sozialerako ekarpenengatik sortu beharreko interesa eta sarrera kuotak edo aldizkakoak zehaztea.
- e) Obligazioak, partaidetza tituluak eta partaidetza bereziak jaulkitzea erabakitzea.
- f) Kooperatibaren bat egitea, zatiketa, eraldaketa eta desegitea erabakitzea.
- g) Bigarren edo goragoko mailako kooperatibak, kooperatiba taldeak eta antzeko entitateak eratzea, bai eta horiekin elkartzea eta horietatik bereiztea ere.
- h) Kooperatibaren antolakuntza, ekonomia eta funtzionamenduaren egituraren aldaketa handiak eragiten dituzten erabakiak onestea, esate baterako:
 - Kooperatibaren aktiboen erdia baino gehiago besterentzea, eta
 - xede soziala aldatzea, baldin eta horrek Kooperatibaren jatorrizko jarduerak desagertzea badakar.
- i) Estatutu Sozialak eta barne araudia onartzea eta aldatzea.
- j) Legeak ezartzen dituen gainerakok.

Hiru. Batzar Nagusiaren eskumen horiek ezin dira eskuordetu, salbu eta artikulua honetako 2.g atalean adierazitako integrazio kooperatiboko prozesuetarako xedatutakoa.

Lau. Batzar Nagusiak Kooperatibarentzat interesgarria den edozein gairi buruz eztabaidatu ahal izango du, baina Legearen eta Estatutu Sozial hauen arabera beste organo sozial baten eskumen eskusiboa ez diren gaietan bakarrik hartu ahal izango ditu nahitaezko erabakiak.

30. artikulua. Motak

Bat. Batzar Nagusia ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

Bi. Ohiko Batzar Nagusiaren helburu nagusia da sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak onartzea –hala badagokio– eta, hala badagokio, soberakinak banatzeari edo galerak egotzeari buruzko erabakiak hartzea. Gai zerrendan, gainera, Batzar Nagusiaren eskumeneko beste edozein gai ere sartu ahal izango da.

Hiru. Gainerako Batzar Nagusi guztiak ezohikoak dira.

31. artikulua. Deialdia

Bat. Kontseilu Errektoreak egingo du Batzar Nagusirako deialdia.

Bi. Ohiko Batzar Nagusia nahitaez bilduko da sozietatearen ekitaldia itxi eta hurrengo lehen sei hilabeteen barruan. Epe hori igaro eta bilerarik edo deialdirik egin ez bada, edozein bazkidek idatziz eskatu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari betebeharrak hori bete dezala. Kontseilu Errektoreak errekerimendua jaso eta hamabost eguneko epean eskaera onartzen ez badu, edozein bazkidek deialdi judiziala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitzako merkataritza arloko epaitegiari.

Hiru. Ezohiko Batzar Nagusia edozein unetan bilduko da, Kontseilu Errektorearen ekimenez, Zaintza Batzordeak eskatuta, halakorik badago, edo gutxienez botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko duten bazkideek hala eskatuta. Azken kasuan, eskaera idatziz bidaliko zaio Kontseilu Errektoreari, errekerimendua gisa, eztabaidagai izango diren gai eta proposamenekin. Batzar Nagusirako deialdirik egiten ez bada errekerimendua jasotzen denetik hogeita hamar eguneko epean, edozein bazkidek eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitzako merkataritza arloko epaitegiari.

Lau. Batzar Nagusirako deialdia iragarki bidez egingo da, sozietatearen egoitzan eta Kooperatibak bere jarduerara garatzen duen zentro bakoitzean modu nabarmenean adierazita.

Deialdian, gutxienez, bileraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira, lehenengo eta bigarren deialdian –horien artean, gutxienez, ordu erdiko tartea egon beharko da–; gai zerrendako gaiak argi, zehatz eta behar bezain zehatz adieraziko dira, eta, hala badagokio, Zaintza Batzordearen txostena.

Gainera, deialdian jasoko da bazkide guztiek izango dutela eskubidea gai zerrendari dagokion dokumentazioa sozietatearen egoitzan aztertzeko.

Deialdia batzarra egin baino gutxienez hamar egun eta gehienez hogeita hamar egun lehenago argitaratuko da.

Bost. Boto guztien %10 baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek, deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro baino lehen, gai zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango dute, Kontseilu Errektoreari zuzenduriko idatzi baten bidez. Kontseilu Errektoreak gai zerrenda berria argitaratu beharko du, gutxienez legez eskatzen den publikitatearekin, eta Batzar Nagusia egin baino lau egun lehenago gutxienez, eta ezin izango da inolaz ere atzeratu.

Sei. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, Batzar Nagusia behar bezala eratuta geratuko da, aldez aurretik deialdia egin beharrik gabe, bazkide guztiak bertan daudela edo ordezkatura daudela, aho batez erabakitzen badute Batzar Nagusi unibertsala eratzea, guztiek gai zerrenda eta bertaraturikoen zerrenda onartuta eta sinatuta, eta ondoren bazkide guztiak bertan egon beharrik gabe.

32. artikulua. Funtzionamendua

Bat. Batzar Nagusia, unibertsala denean izan ezik, egoitza soziala dagoen herrian bertan edo Kontseilu Errektoreak izendatutako beste edozein tokitan aurrez aurre egingo da, baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude.

Bi. Batzar Nagusia aurrez aurre edo, osoki edo partzialki, telematikoki edo teknologiak ahalbidetzen duen antzeko beste edozein sistemaren bidez egin ahal izango da. Erabakia Kontseilu Errektoreak hartuko du.

Kontseilu Errektoreak ezarriko du bertaratzeko ez-presentziala gauzatzeko sistema, eta honako hauek bermatuko ditu:

- a) Deialdiaren xede diren pertsona guztiek sartzeko aukera izatea.
- b) Bazkidearen nortasuna egiaztatzea.
- c) Boto eskubidea erabiltzea eta, aurreikusita dagoenean, haren konfidentzialtasuna.
- d) Komunikazioaren irudia eta soinua noranzko bikoia eta aldiberekoa izatea, baita ikusmen, entzumen eta ahozko interakzioa ere.
- e) Hala adierazten duten bazkideek modu presentzian parte hartu ahal izatea batzarrean.

Batzar Nagusiko idazkaritzak berriaz jasoko ditu Batzar Nagusiko aktan, bazkide bakoitza Batzar Nagusira sartzeko sistema, haren nortasuna eta haren borondatea adierazteko erabilitako bitartekoa, bai eta erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzak ere.

Hiru. Batzar Nagusia balio osoz eratuko da, lehenengo deialdian, botoen gehiengoa bertan edo ordezkaturik dagoenean, eta bigarren deialdian, gutxienez botoen %10 bertan edo ordezkaturik daudenean. Nahikoa izango da quorum hori bileraren hasieran lortzea.

Lau. Batzar Nagusirako deialdia egiten den egunean bazkide diren guztiek dute bertaratzeko eskubidea, salbu eta eskubide hori etenda daukatenean.

Bazkideak ez badira bertaratzeko, beste bazkide batzuek ordezkatu ahal izango dituzte, Batzar Nagusi bakoitzerako idatziz emandako baimen bereziaren bidez. Bazkide bakar batek ere ezin izango ditu bi ordezkari bakoitza baino gehiago izan, bereaz gain. Ordezkaritza ezeztatuta egin daiteke. Ordezkaturik Batzar Nagusira pertsonalki joateak ezeztatze balioa izango du.

Zaintza Batzordeak edo, halakorik ez badago, Batzar Nagusiko lehendakariak erabakiko du ordezkariak idazkien baliozkotasunari eta nahikotasunari buruz.

Bost. Batzar Nagusiaren buru Kontseilu Errektorearen lehendakaria izango da, eta, bestela, lehendakariordea eta, hori ere ez badago, Batzar Nagusiak funtzio hori betetzeko izendatzen duena. Lehendakariari dagokio eztabaidak gidatzea, Batzar Nagusiaren garapenean ordena mantentzea eta legezko formalitateak betetzen direla zaintzea.

Idazkaria Kontseilu Errektoreko idazkaria izango da, edo, bestela, Batzar Nagusiak izendatzen duen bazkidea.

Sei. Gai zerrendan agertzen ez diren gaien gaineko erabakiak baliozgabeak izango dira, Legeak erabaki horiek hartzea berariaz baimentzen ez badu behintzat.

Zazpi. Bozketa nahitaez isilpekoa izango da Euskadiko Kooperatiben Legean eta Estatutu Sozial hauetan xedatutako kasuetan, eta bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen gutxienez %10ek eskatzen dutenean. Gainerako kasuetan, lehendakariak erabakiko du.

Zortzi. Kontseilu Errektoreko kideek Batzar Nagusietara joan beharko dute, eta Zuzendaritza, Gerentzia eta bazkide ez diren teknikariak ere bertaratu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, Kontseilu Errektoreak berariaz deitzen dituztenean. Era berean, Batzar Nagusiak beste edozein pertsona bertaratzeko baimena eman ahal izango du.

33. artikulua. Boto eskubidea

Bat. Bazkide bakoitzak boto bat izango du, bazkide laguntzaileek izan ezik, horiek hurrengo paragrafoan xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

Bi. Bazkide laguntzaileen boto kopurua jarduera kooperatibizatuarekiko proportzionala izango da. Bazkide laguntzaile bat baino gehiago izanez gero, jarduera kooperatibizatuaren arabera banatuko dira.

Bazkide laguntzailerik ez badago, bazkide langileek izango dute haien boto kuota.

Hiru. Bazkide laguntzaileen botoen baturak, sozietate kooperatiboetan izan ezik, ezin izango du botoen herena gainditu, ez Batzar Nagusian, ez Kontseilu Errektorean. Bazkide laguntzaileen, bazkide ez-aktiboen, eszedentzian dauden bazkideen eta iraupen jakineko lotura dutenen botoen guztizko kopurua ezin izango da inola ere kooperatibaren guztizko botoen erdira iritsi.

Lau. Bazkideak ezingo du boto eskubidea erabili interes gatazka hauetan:

- a) Hartu behar den erabakiak zuzen-zuzenean eta berari bakarrik eragiten dionean, espedienteen jasotako gehiengoaren parte denean izan ezik, eta
- b) Kooperatibak egikaritutako erantzukizun akzio baten subjektu denean.

34. artikulua. Gehiengoaren araubidea

Bat. Batzar Nagusiaren ohiko erabakiak baliozkotasunez emandako botoen erdiek baino gehiagok hartuko dituzte, salbu eta Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak edo Estatutu Sozial hauek balioz emandako botoen gehiengo indartua ezartzen dutenean. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira baliozkotasunez emandako bototzat hartuko.

Bi. Kooperatibaren eraldaketa, bat egitea, zatiketa edo desegitea erabakitzeko, Batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen baliozko botoen bi hereneko gehiengoa beharko da, baldin eta bertaratu eta ordezkaturakoen boto kopurua kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada.

Hiru. Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzeko erabakia hartzeko, bertaratutako eta ordezkaturako bi herenen aldeko botoa beharko da, kargugabetzea Batzar Nagusiko gai zerrendan agertzen ez denean.

35. artikulua. Batzar Nagusiaren akta

Bat. Idazkariak bilkurako akta idatziko du eta Batzar Nagusiaren Akta Liburuan transkribatuko du, honako inguruabar hauek jasota:

- a) Batzarra noiz eta non egin den.
- b) Deialdia noiz eta nola egin den, Batzar Nagusi unibertsala ez bada behintzat.
- c) Deialdiaren testu osoa.
- d) Zenbat bazkide bildu diren, zehaztuz zenbat etorri diren pertsonalki eta zenbat norbait ordezkaturak, baita Batzar Nagusia lehenengo deialdian edo bigarrenaren egin den ere.
- e) Etabaidaturako gaien eta aktan jaso daitezela eskaturako iritzien laburpena.
- f) Hartutako erabakien edukia.
- g) Bozketen emaitzak, erabaki bakoitza zenbateko gehiengoarekin hartu den zehaztuta. Aurkako botoa eman duenak hala eskatzen badu, hartutako erabakien aurka dagoela jasota geratuko da.
- h) Aktaren onespena, bilera bukatu ondoren hala gertatzen bada.

Bi. Batzarrak berak onartu ahal izango du akta, Batzarra egin ondoren, edo, bestela, eta nahitaez, hamabost eguneko epean, lehendakariak eta Batzar Nagusiak izendaturako bi bazkidek onartuko dute; pertsona horiez gain idazkariak ere sinatuko du akta.

Hiru. Batzar Nagusira bertaratzen den orok du eskubidea hartutako erabakien aktaren testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko. Ziurtagiri horiek ematen diren egunean idazkaria denak emango ditu, lehendakariaren oniritziarekin.

Lau. Inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztuko dira, akta onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

36. artikulua. Erabakiak inpugnatzea

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiak inpugnatu egin ahal izango dira, baldin eta legearen aurkakoak badira, Estatutu Sozialen aurkakoak badira edo Kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte, bazkide baten edo batzuen edo bazkide ez diren hirugarrenen mesedetan.

Ez da egokia izango Kapital Sozietateen Legearen arabera ondorioz gabe utzi den edo baliozkotasunez ordeztu den akordio bat inpugnatzea, ezta arau horrek xedatzen dituen gainerako kasuetan ere.

Bi. Inpugnatze akzioa bazkide guztiek, Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak, Zaintza Batzordea osatzen duten pertsonak (halakorik badago) eta bidezko interesa duen beste edozein pertsonak baliatu ahal izango dute, eta urtebeteko epean iraungiko da, salbu eta ordena publikoaren aurkakoak diren akordioak, haien kausa edo edukia dela eta.

Inpugnatze akzioa baliatzeko aurreikusitako iraungitze epea erabakia hartzen den egunetik aurrera zenbatuko da, edo, inskriba badaiteke, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera.

Hiru. Inpugnatze akzioa baiesten duen epaiak ondorioak izango ditu bazkide guztien aurrean, baina ez die eragingo fede oneko bazkide ez diren hirugarrenek inpugnatutako erabakiaren ondorioz eskuratutako eskubideei.

2. SEKZIOA. KONTSEILU ERREKTOREA

37. artikulua. Izaera eta eskumenak

Bat. Kontseilu Errektorea kide anitzeko organo bat da, eta berari dagozkio, eskusiboki, Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza; gainera, legeak edo Estatutu Sozial hauek berariaz beste organo sozial batzuei erreserbatzen ez dizkieten ahalmen guztiak baliatzen ditu.

Kontseilu Errektoreari esleitutako ordezkaritza, printzipioz, Kontseiluko lehendakariak beteko du, eta, hura ez badago, lehendakariordeak, Kontseilu Errektoreak bestelakorik erabakitzen ez badu behintzat.

Bi. Hauexek dira Kontseilu Errektoreari dagozkion ahalmen espezifikoak:

- a) Kooperatibaren martxa antolatu, gidatu eta kudeatzea.
- b) Kooperatibaren ordezkari izatea, eskuordetza ahalmenarekin, erantzukizun osoz, edozein motatako egintza eta kontratuetan, eta, bereziki, parte hartzen duen erakundeetako organo sozialetan.
- c) Kontseilukideek karguei uko egiteari, hutsik geratu diren postuak betetzeari eta, oro har, organoaren beraren barne funtzionamenduaren arauketari buruz dagokiona erabakitzea.
- d) Zuzendari kudeatzailea izendatzea eta, zuzendaritzari egindako proposamena oinarri hartuta, haiek kargutik kentzea eta haien ahalmenak, eginbeharrak eta ordainsariak zehaztea. Hala badagokio, pertsona horien aurkako erantzukizun akzioak egikaritzea.
- e) Pertsona jakin batzuei ahalmenak ematea eta ezeztatzea, ondorio zehatzetarako edo negozio sozialaren adar jakin batzuk zuzentzeko.

- f) Bazkidea onartzeko eta baja emateko erabakia hartzea, Estatutu Sozial hauetan xedatutakoaren arabera.
- g) Bazkideen eta bazkide ez direnen ekonomia eta lankidetzak baldintzak hitzartzea.
- h) Estatutuetako eskubideei eta betebeharrei, lanaren antolamenduari eta bazkideen lan eta diziplina araubideari lotutako gaiei buruz erabakitzea.
- i) Batzar Nagusiari Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren aldaketak proposatzea.
- j) Estatutu hauen interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak ebaztea, eta egiten den lehen Batzar Nagusian horren berri ematea.
- k) Estatutuetako eta araudiko aginduak edo Batzar Nagusiaren erabakiak betearazteko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onartzea.
- l) Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak deitzea eta haien erabakiak betearaztea.
- m) Urteko kontuak, balantzea eta kudeaketa sozialaren azalpen memoria urtero aurkeztea Ohiko Batzar Nagusiari, eta soberakin garbien banaketa edo, hala badagokio, galeren egozpena proposatzea.
- n) Ekarpinak harpidetzeko eta obligazioak, partaidetza tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzeko beharrezko dena zehaztea, Batzar Nagusiak hartutako akordioaren arabera.
- o) Batzar Nagusiak adostutako interesak ordaintzeko data erabakitzea.
- p) Helburu soziala betetzeko beharrezko edo komenigarri izan litezkeen egintza eta kontratuak egitea: ondasun higiezinak eskuratu edo besterentzea, eskubide errealean eraketa hipotekena, eta errentamenduko berezia barne, eta Estatutu hauek kooperatibari baimentzen dizkieten negozio eta eragiketa mota guztiak ebaztea.
- q) Honako transakzio eta eragiketa hauek egitea:
- Bai partikularren bai bulego publikoen funts eta ondasun sozialak erabiltzea, erreklamatzeko, jasotzea eta kobratzea, kutxa orokorrean eta interes sozialei komentariari zaien lekuan gordailuak eratuz edo erretiratuak.
 - Sozietatearen sinadura eman eta bere izenean aritzea, banku erakunde nazionalekin zein atzerrikoekin egindako edozein banku eragiketatan, Espainiako Bankuarekin egindakoetan barne, aurrezki libretak irekiz eta itxiz, eperako ezarpenak eginez eta bankuko gordailuak (eskudiruzkoak, kredituzkoak nahiz baloreetakoak) eratuz eta horiek erabiliz.
 - Kanbio letrak, agindurako ordaindukoak eta merkataritzako eta igorpeneko gainerako efektuak negoziatu, deskontatu, esku hartu, konpentsatu, adierazi, kobratu, ordaindu, libratu, onartu, abala eman, endosatu eta kexatzea, onarpen edo ordainketa faltagatik eta segurtasun gehiago izateko.
 - Orotariko salgaiekin egindako eragiketak pignoratzeko.
 - Korrespontsalen esku dauden Kooperatibaren funts eta ondasunak eskuragarri izatea.
 - Segurtasun kutxak alokatu eta irekitzea.
 - Sozietatearen eta sozietatearen baloreen berme pertsonaletik dirua maileguan hartzea.
 - Endosatu ezin diren kredituak transferitzea.
 - Merkataritza eragiketak finkatzea.
 - Kreditu polizak abalatzeko.
 - Funtsen, errenten, kredituen edo baloreen transferentziak egitea, dirua igortzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz, kontu saldoak eta kitapenak onartzea, gordailuak edo fidantzak eratzea eta kentzea, kontuak osatzea, aldaketak formalizatzea, etab., bai Espainiako Bankuan eta Banku Ofizialean, bai banku eta aurrezki erakunde pribatuetan, hala nazionaletan nola atzerrikoetan.

- Sozietatearen izenean berarekin nolabaiteko lotura ekonomikoa duten pertsonak edo erakundeak finkatzea eta abalatzea eta, beste edozein eratarata, bermatzea, betiere egintza zuzenean edo zeharka xede sozialaren barnekoa bada.
 - Lehiaketa eta enkanteetan parte hartzea, era guztietako kontratuak egitea, egokitzen jotzen dituen baldintzekin, eta horiek zuzentzea, aldatzea edo deuseztatzea.
- r) Kooperatibari komeni zaizkion kreditu, mailegu edo sinadura bermerako eragiketarako adostea.
 - s) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalatu ematea, bai eta zuzenbidean onartutako edozein motatako tituluak, zor publikoak edo balore higigarri edo higiezinak erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea ere, baita horiei egoki irizitako moduan eragitea ere.
 - t) Batzar Nagusiaren erabakien arabera, dauden funtsen inbertsioa zehaztea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalmenak eta ordezkariak izendatzea, bakoitzari kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion ahalmenak emanaz.
 - u) Sute arriskuen gaineko eta edozein motatako aseguruak kontratatzea, garraiokoak, istripuen gainekoak, lapurreten gainekoak eta besteak; primak ordaindu, aseguratzailen kobrantzak eskatu eta egitea, eta erreklamazioak onartzea.
 - v) Sozietateari zor zaizkion diru kopuru guztiak erreklamatzeko eta kobratzea, baita Ogasun Ordezkaritzetan, Ministerioetan, Gordailuen Kutxa Orokorrean eta horien sukurtsaletan eta gainerako bulegoetan, institutuetan, erakunde eta organismo publiko eta pribatuetan, nazionaletan, atzerriarretan edo Europar Batasunekoetan, eta, oro har, betebeharrak betetzeko eskatzea, dagozkion ordainagirietako ordainketa gutunak formalizatuz eta edozein likidazio edo hitzarmen onartuz.
 - w) Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien eta Estatu, Lurralde Administrazio Autonomo, Probintzia edo Udalerriko bulego, agintari, korporazio edo organismoen aurrean kooperatibari dagozkion eskubide edo ekintzen gauzatzeari buruz komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea, baita errekurso arrunt eta apartekoak aurkezteari buruz ere. Horretarako, ordezkari, prokuradore edo abokatuak izenda ditzake Kooperatibaren ordezkariak eta defentsa egiteko, eta pertsona horiei, behar den eran, kasuan kasuko ahalmenak emango dizkie adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurso edo bestelako jarduketetan eta edozein prozedura egoeratan bat etorri edo bertan behera uzteko, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.
 - x) Hala balegokio, kooperatibaren ordainketa etena, porrota eta desegite espedienteak Batzar Nagusiari proposatzea eta prozesu horietan bere eskuduntzakoak diren faseak betetzea.
 - y) Batzar Nagusiari Kooperatiba desegitea proposatzea.
 - z) Estatutu Sozial hauetan bereziki esleitutakoak.

Hiru. Kontseilu Errektorearen aurreko ahalmenen zerrenda azalpenezkoa baino ez da, eta ez ditu bere ahalmenak mugatzen Legeak Kooperatibaren beste organo sozial batzuen eskumen eskusiboari berariaz erreserbatzen ez dion guztian.

Lau. Kontseilu Errektoreak ahalorde orokorrak eman eta ezeztatu ahal izango dizkio zuzendaritzako edo gerentziako arduradun bati edo batzuei, eta ahalorde eskrituran emandako ahalmenak izango ditu, Kooperatibaren ohiko trafikoa buruzkoak bakarrik. Izendapena, ahalordea eta ezeztapena Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira. Kontseilu Errektoreak, bestalde, edozein pertsonaren esku utzi ahal izango ditu eskumen bereziak.

38. artikulua. Osaera, izendapena eta agintaldia

Bat. Bazkideak ez direnek ezin izango dute Kontseilu Errektorea osatu.

Bi. Kontseilu Errektorea gutxienez hiru pertsonak eta gehienez bederatzirekin osatuko dute, eta horietatik hiruk beteko dituzte lehendakaritza, lehendakariordetza eta idazkaritza karguak. Batzar Nagusiak kopuru horien barruan zehaztuko ditu Kontseilu Errektoreko kideen kopurua, gutxienez zazpi kontseilukideko kopurua errespetatuz kooperatibak 150 bazkide baino gehiago dituenen. Gainera, hiru ordezkari izendatuko dira Kontseilu Errektorea berritzeko hauteskundeak egiten diren bakoitzean.

Hiru. Bazkide laguntzailerik egonez gero, talde horrek egiten duen jarduera kooperatibizatuarekiko proportzionala den lanpostu erreserba izango du, Euskadiko Kooperatiben Legearen maximoen barruan, eta ez da ordezkari izendatuko. Kalkulu horren emaitza zenbaki hamartarrak dituen zenbaki bat bada, beharrezko zenbaki osora biribilduko da –hamartarrik gabe–.

Lau. Bazkide laguntzaileen ordezkari izango diren kontseilukideak izendatu behar badira, horiek isilpeko bozketa partzialetan aukeratuko dira, eta bazkide laguntzaileak eta gainerako bazkideak bereizi egingo dira.

Bost. Balioz emandako boto kopuru handiena lortzen duten pertsonak titular gisa aukeratuko dira, eta titularrek jasotakoak baino boto gutxiago lortzen dituztenak ordezkari gisa aukeratuko dira.

Sei. Batzar Nagusiak zuzenean hautatuko du lehendakariaren figura, eta Kontseilu Errektoreak egiten duen lehenengo bilkuran banatuko dira lehendakariordetzako eta idazkaritzako karguak.

Zazpi. Kontseilu Errektorea osatzen duten kideen agintaldia lau urtekoa izango da, eta bi urtean behin berrituko dira partzialki. Batzar Nagusiak kontseilukideak izendatzerakoan, agintaldiaren indarraldia adierazi beharko da beti.

Agintaldia amaitu ondoren, kontseilukideek karguan jarraituko dute Kontseilu Errektoreko kide berriak Batzar Nagusiak aukeratu eta kargua onartu arte.

Zortzi. Honako hauek ezin izango dira Kontseilu Errektoreko kide izan:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak, epaiketa bidez ezgaituak, Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; halaber, askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltukeriatatik kondenatuak, baita haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenak ere.
- b) Kooperatibaren, epaileen, magistratuen eta legezko bateraezintasunen bat duten gainerako pertsonen berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak dituzten funtzionarioak edo administrazio publikoaren zerbitzura diharduten langileak.

- c) Beren kontura edo besteren kontura jardunez Kooperatibarekin lehian sartzen diren jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera Kooperatibaren interesen aurkako jarduerak egiten dituztenak, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean debeku hori salbuesteko aukerari buruz xedatutakoaren kalterik gabe.
- d) Zaintza Batzordeko kideak, halakorik egonez gero, zuzendari gerenteak eta gainerako zuzendariak.
- e) Eszedentzian dauden bazkide langileak.

Bederatzi. Kontseilukide batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du bere erabakia idatziz, eta Kontseilu Errektoreari jakinarazi; Kontseilu Errektoreak erabakiko du ea justifikatuta dagoen ala ez uko egiteko adierazitako arrazoia, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Hamar. Kontseilu Errektorean hutsik geratzen diren lekuak ordezkoez beteko dituzte.

Lehendakari kargua hutsik geratzen denean, haren funtzioak lehendakariordeak beteko ditu Lehen Batzar Nagusia egin arte, eta bertan aukeratuko da. Lehendakari eta Lehendakariorde karguak aldi berean hutsik geratzen badira, lehendakariaren funtzioak berehala hartuko ditu bere gain kontseilukide zaharrenak, eta Batzar Nagusirako deialdia egingo da, hurrengo hogeita hamar eguneko epean hautatzeko.

Kontseilukide izateko epearen barruan postu gutxi batzuk hutsik geratzen badira eta ordezkorik ez badago, Kontseilu Errektoreak bazkide bat izendatu ahal izango du hutsunea betetzeko harik eta hurrengo Batzar Nagusia biltzen den arte.

Hamaika. Batzar Nagusiak edozein unetan erabaki ahal izango du Kontseilu Errektoreko kideren bat edo guztiak kargutik kentzea, nahiz eta gai zerrendan jasota egon ez. Kasu horretan, bilkuran bertan, kontseilukide berriak hautatuko dira, ordezkoez ez badaude behintzat.

Hamabi. Kontseilu Errektoreko kideen izendapenak onartzen den unetik izango ditu ondorioak, eta Kooperatiben Erregistroan aurkeztuko da, bertan inskribatzeko, hogeita hamar eguneko epean, onarpenaren datatik aurrera.

Kontseilukideen kargu uzteak, edozein arrazoi dela medio, ondorioak izango ditu hirugarrenen aurrean, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren egunetik aurrera.

Hamahiru. Kontseilu Errektorea osatzen duten pertsonak dohainik beteko dute kargua, eta ez dute berariazko ordainsaririk jasoko beren karguagatik; nolana ere, jardunean emandako orduak beren lansariaren arabera ordaindu ahal izango zaizkie.

Ordainsaririk egon ez arren, bertaratzeagatik dietak sortu ahal izango dira, eta, kasu guztietan, betetzen duten funtzioak eragiten dituen gastuak konpentsatuko zaizkie.

39. artikulua. Funtzionamendua

Bat. Kontseilu Errektorea hilean behin bilduko da –Kooperatibaren jarduera nagusia oporregatik etenda dagoen aldietan izan ezik–, eta lehendakariak bere ekimenez edo kideen herenek gutxienez eskaera arrazoitua eginda deitzen duten aldiro; bilkuretan, Kontseiluaren eskumeneko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

Bi. Kontseilu Errektorearen bileretarako deialdia lehendakariak egingo du, idatziz, kontseilukide bakoitzari zuzenduta, gutxienez 5 egun lehenago. Premiazko bileretarako deialdiak, berriz, gutxienez egun 1 lehenago egin ahal izango dira.

Hiru. Kontseilukideak bideokonferentzia bidez edo antzeko sistemaren baten bidez bertara daitezke, irudia eta soinua bi norabidetan eta aldi berean komunikatuz eta ikusmenezko, entzumenezko eta ahozko interakzioa ahalbidetuz. Idazkariak aktan berariaz jasoko ditu kontseilukideen nortasuna eta bertaratzeko erabilitako bitartekoa, baita erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzak ere.

Lau. Kontseilu Errektorea baliozkotasunez eratuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago bertaratzeko direnean. Kontseilukideek pertsonalki parte hartuko dute bilkuretan, eta ezin izango da ordezkariarik egon. Erabakiak hartzeko, bertaratutako botoen erdia baino gehiago beharko da. Kontseilukide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak berdinketak ebatziko ditu. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko.

Bost. Kontseilu Errektoreak, honako erabaki hauek hartzeko, gutxienez bertaratutako en bi herenen aldeko botoa beharko du:

- a) Jarduera zentro oso bat edo hango zati nagusi bat ixtea edo lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jardueran murrizketa, hedapen edo aldaketa nabarmenak egitea.
- c) Kooperatibaren antolamenduan aldaketa handiak eragitea.
- d) Kooperatibarentzat lankidetzaren harreman iraunkor eta baliotsua dakarten beste erakunde batzuekin (kooperatibak izan edo ez) loturak ezartzea edo amaitzea.
- e) Legeak hala ezartzen duenean.

Sei. Bileraren akta isilpean sinatuko dute lehendakariak eta idazkariak, eta labur-labur jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak; eta hori guztia Akta Liburuan jasoko da.

Zazpi. Kontseilu Errektoreak kontseilukide ordezkari bat izendatu ahal izango du bere baitan. Horretarako, kideen bi herenek aldeko botoa eman beharko dute eta notariotzaren aurrean formalizatu beharko da, baina ez du ondoriozko izango Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Ezin izango dira inola ere eskuordetu Batzar Nagusiari kontuak ematea eta urteko kontuak aurkeztea, ezta Batzar Nagusiak Kontseilu Errektoreari ematen dizkion ahalmenak ere, Batzar Nagusiak hori berariaz baimentzen ez badu behintzat.

40. artikulua. Kontseilukideen betebeharrak eta erantzukizunak

Bat. Kontseilukideek:

- Legeek eta Estatutu Sozialek ezarritako karguak eta betebeharrak enpresaburu ordenatu baten marzetasunaz beteko dituzte, karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako eginkizunak kontuan hartuta; kooperatiba behar bezala kudeatu eta ordezkatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

Enpresa diskrezionalitateari lotutako erabaki estrategikoetan eta negozio erabakietan, enpresaburu ordenatu baten marzatasunaren estandarra betetzat joko da kontseilukideak fede onez, erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik gabe, informazio nahikoarekin eta egoki funtzionatuz jardun duenean. Ez dira enpresa diskrezionalitatearen barruan sartuko kooperatibaren interesekiko gatazka eragiten duten edo eragin dezaketen erabakiak.

- Ordezkarizintzo baten leialtasunez beteko dute beren kargua, fede onez jardungo dute kooperatibaren interesaren mesedetan, eta beren ahalmenak ez dituzte erabiliko eman zaizkien helburuetarako ez diren beste batzuetarako.
- Beren funtzioak amaitu eta gero ere, sekretupean gorde behar dituzte datu konfidentzialak, legeak bestelakorik ahalbidetzen edo agintzen duenean salbu.
- Ez dute beren konturako jarduerarik egingo, baldin eta kooperatibarekin lehian sartzen badira edo, modu batera edo bestera, kooperatibaren interesekin gatazka sortzen bada. Hala ere, kasu berezietan kooperatibak debeku hori salbuetsi ahal izango du, Batzar Nagusiak alde aurretik berariaz hala erabakitzen badu. Halako gatazka egoera batean dagoen kontseilukideak ezin izango du dagokion bozketan parte hartu. Nolanahi ere, Kontseilu Errektoreari edo Batzar Nagusiari jakinarazi beharko dio, kontseilukide denean. Aipaturiko baimenik gabe gauzaturiko egintzak, kontratuak eta eragiketak deuseztatu egin ahal izango dira; dena den, bazkide ez diren fede oneko hirugarrenek eskuraturiko eskubideak salbu egongo dira.

Bi. Egintza egin edo erabaki kaltegarria hartu zuen Kontseilu Errektoreko kide guztiek izango dute erantzukizun solidarioa, salbu eta frogatzen badute, erabaki hori hartzen edo betearazten parte hartu ez zutenek, ez zekitelako haren berri, edo, haren berri izanez gero, ahal zuten guztia egin zutela kaltea saihesteko, edo behintzat berariaz aurka egin zutela. Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko.

41. artikulua. Erantzukizun akzioa

Bat. Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizun sozialeko akzioa gauzatu ahal izango du Kooperatibak, Batzar Nagusiak gehiengo arruntez hala erabaki ondoren, nahiz eta gai zerrendan ez agertu. Batzar Nagusiak edozein unetan egin ahal izango dio uko akzioa gauzatzeari. Erantzukizun akzioa sustatzeko akordioak berekin dakar eragindako administratzaileak automatikoki kargutik kentzea. Gai zerrendan ez badago, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa, boto zuriak eta baliogabeak alde batera utzita.

Bi. Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizun akziorik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango luke. Era berean, gutxienez botoen ehuneko hogei ordezkatzeko dute bazkideek erantzukizun akzioa abiarazi ahal izango dute interes soziala defendatzeko, Kontseilu Errektoreak horretarako eskaturako Batzar Nagusirako deialdirik egiten ez badu.

Kaltea egin eta sei hilabetera Batzar Nagusiak edo bazkideek ez badute akziorik gauzatu, sozietateko edozein hartzekodunek hasi ahal izango du erantzukizun akzioa, Kooperatibaren ondarea berriro osatzeko helburuarekin bakarrik.

Hiru. Erantzukizuna eragin duten egintzak gertatu eta bi urtera preskribatuko da akzioa, edo horren berri izan eta bi urtera.

Lau. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, salbu geratuko dira bazkideei eta bazkide ez diren hirugarrenei beren interesak zuzenean kaltetzen dituzten administratzaileen egintzengatik dagozkien banakako akzioak.

Bost. Leialtasun betebeharra urratzeak, ondare sozialari eragindako kaltea ordaintzeko betebeharra ez ezik, Kooperatibari aberaste bidegabea itzultzeko betebeharra ere ekarriko du.

42. artikulua. Erabakiak inpugnatzea

Bat. Kontseilu Errektorearen erabakiak inpugnatu egin ahal izango dira baldin eta Legearen edo Estatutu Sozialen aurkakoak badira eta Kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte, bazkide baten edo batzuen edo bazkide ez diren pertsonen mesedetan.

Erabaki bat eragin gabe uzten bada edo beste batek ordezkutzen badu ez dagokio inpugnaziorik.

Bi. Honako hauek inpugnazio akzioak egikaritzeko legitimazioa izango dute:

- a) Edozein bazkidek, erabakiaren berri izan eta 60 eguneko epean, baldin eta erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.
- b) Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kideek, halakorik balego, erabakia hartu eta 60 eguneko epean.

Hiru. Inpugnazioak, berez, xedatuta dauden ondorioak izango ditu, eta Batzar Nagusiaren erabakiak inpugnatzeko ezarritako bidetik tramitatuko da.

3. SEKZIOA. ZUZENDARIA

43. artikulua. Zuzendaritza

Bat. Kontseilu Errektorea da Kooperatibaren jarduera profesionalki kudeatzeko zuzendari kudeatzaile kargua betetzen duen pertsona edo pertsonak izendatzeko eta kargutik kentzeko eskumena duen organoa. Izendapena eta kargu uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira.

Bi. Zuzendari gerentea besteren konturako bazkide langile bat izan daiteke; ez ordea Euskadiko Kooperatiben Legean eta Estatutu Sozial hauetan Kontseilu Errektoreko kideentzat xedatutako ezintasun edo debeku kausetan sartuta dauden pertsonak. Zuzendari gerentearen kargua bateraezina da Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko –halakorik dagoenean– kide izatearekin.

Hiru. Zuzendari gerenteari aplikatuko zaizkio kontseilukideen betebeharrei eta erantzukizunei buruzko arauak, zeinak Euskadiko Kooperatiben Legean eta Estatutu Sozial hauetan araututa baitaude.

Lau. Zuzendari gerenteak zuzendari bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu, baita kargutik kendu eta haien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztu ere.

Bost. Zuzendari kargua bateraezina da Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko –halakorik badago– kide izatearekin.

4. SEKZIOA. ZAINZA BATZORDEA

44. artikulua. Osaera, izendapena eta agintaldia

Bat. Kooperatibak Zaintza Batzordea izateko legezko betebeharra duenean, batzorde hori hiru pertsonak osatuko dute, eta horietatik bik lehendakari eta idazkari karguak beteko dituzte. Bi ordezkoko egongo dira.

Bi. Bazkideak baino ezin izango dira Zaintza Batzordeko kide izan.

Hiru. Zaintza Batzordeko kideak Batzar Nagusiak hautatu eta ezeztatuko ditu, isilpeko bozketa bidez betiere, balioz emandako boto gehiengoarekin. Lehendakari eta idazkari karguak Zaintza Batzorde barruan aukeratuko dira.

Lau. Agintaldiaren iraupena hiru urtekoa izango da.

Bost. Zaintza Batzordea osatzen duten pertsonak Kontseilu Errektoreko kideentzat ezarritako betebeharrei eta erantzukizunei, ordainsariei, ezintasunari, debekuei eta erregistro inskripzioei buruzko arauen mende egongo dira.

45. artikulua. Eskumenak

Bat. Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren jardueren eta aurreikusten zaion bilakaeraren berri eman beharko dio Zaintza Batzordeari, hiru hilean behin gutxienez. Zaintza Batzordeak eskubidea du bere misioa betetzeko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak egiteko, eta zeregin hori kide baten edo batzuen esku utz dezake, edo adituen laguntza eska dezake, kide horietako bat ere aditua ez bada. Zaintza Batzordeko edozein kidek eskuratu ahal izango ditu jakinarazitako eta jasotako informazio guztiak, baina egindako ikerketen edo lortutako informazioen emaitzak ezin izango ditu estatutuetako bideetatik kanpo jakinarazi, ezta Kooperatibako bazkideei ere.

Bi. Zaintza Batzordeak ezin izango du zuzenean esku hartu Kooperatibaren kudeaketan, eta ezin izango du hura ordezkatu bazkide ez diren hirugarrenen aurrean; hala ere, Kontseilu Errektorearen aurrean edo hura osatzen duen edozein pertsonaren aurrean ordezkatu du, organo horren aurkako inpugnazio judizialen kasuan edo bertako kideekin egindako kontratuen amaieran.

Hiru. Zaintza Batzordeak honako funtzio hauek betetzeko ahalmena du:

- a) Urteko kontuak berrikustea eta horiei buruzko eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena egitea Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, Kooperatibak bere finantza egoeraren kontu auditoretza egin behar duenean izan ezik.
- b) Kooperatibaren liburuak berrikustea.

- c) Batzar Nagusirako deialdia egitea, Kooperatibaren intereserako beharrezkotzat jotzen denean eta administratzaileek, ezarritako epeetan, bazkideek alde aurretik egindako eskaerari jaramonik egin ez diotenean, Estatutu Sozial hauetan ezarritakoaren arabera.
- d) Ordezkaritza idazkien egokitasuna gainbegiratzea eta kalifikatzea, eta, oro har, Batzar Nagusira sartzeko eskubideari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzea.
- e) Akordio sozialak inpugnatzea, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatutako kasuetan.
- f) Batzar Nagusiari berak argitzeko eskatutako egoera edo gai zehatzen berri ematea.
- g) Batzar Nagusiak gainerako organoak osatuko dituzten pertsonak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea.
- h) Ezintasun edo debeku arrazoiren batean sartu diren administratzaileen jarduna etetea, eta, hala badagokio, Batzar Nagusia egin arte ezinbestekoak diren neurriak hartzea.
- i) Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legeak berariaz agintzen dizkion gainerako funtzioak.

Lau. Kooperatiba bere egoera finantzarioa ikuskatzera behartuta dagoenean, kideek egoki baderitzote, Zaintza Batzordeak kontabilitate euskarriak aztertu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, horiei buruzko txostena egin. Dena den, txosten hori ez da nahitaezkoa izango Kooperatibaren urteko kontu ikuskatuak onartzeko.

Era berean, urteko kontuak ikuskatu arren, Zaintza Batzordeak soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egin ahal izango du.

Kasu bietan, Zaintza Batzordeak Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko dio Kooperatibaren urteko kontuei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena aurkezteko asmoa duela, bazkideek ohiko Batzar Nagusiaren deialdia argitaratzen den unean bertan aztertu ahal izan dezaten.

46. artikulua. Funtzionamendua

Bat. Zaintza Batzordea hiru hilean behin bilduko da gutxienez, eta lehendakariak bere ekimenez edo Zaintza Batzordeko edo Kontseilu Errektoreko kide batek, gutxienez, eskaera arrazoitua egiten duen aldiro. Batzordearen bileretan, bere eskumeneko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

Zaintza Batzorderako deialdia gutxienez Kontseilu Errektorearen edo Zaintza Batzordeko herenek eskatzen badute, eta hilabeteko epean deialdia egiten ez bada, talde eskatzaileetako edozeinek egin ahal izango du deialdia.

Bi. Zaintza Batzordearen bileretarako deialdiak lehendakariak egingo ditu, idatziz, kide bakoitzari zuzenduta.

Hiru. Zaintza Batzordea balioz eratuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Bertaratzea pertsonala eta ordezkaezina izango da, eta bileran dauden Zaintza Batzordeko kideen botoen erdiek baino gehiagok hartuko dituzte erabakiak.

Kide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak ez ditu berdinketak ebatziko. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko.

Geografikoki urruti dauden Zaintza Batzordeko kideek parte hartu ahal izango dute, baldin eta erabakiak bideokonferentzia bidez edo antzeko sistema baten bidez balioz hartzeko borondatea adierazten badute, irudiaren eta soinuaren bi norabideko eta aldibereko komunikazioa eta ikusizko, entzutezko eta ahozko interakzioa ahalbidetuz.

Zaintza Batzordeko kideren batek organo horren bileretan parte hartzen badu eta bere borondatea aurreko paragrafoan adierazitako moduan adierazten badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan kidearen identitatea eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.

Lau. Bileraren aktak, lehendakariak eta idazkariak sinatuta, modu laburrean jasoko ditu eztabaidak, akordioen testua eta bozketen emaitzak, eta Akta Liburuan jasoko da.

Bost. Likidazio aldian, Zaintza Batzordeak aurreko artikuluan adierazitako eginkizunak baino ez ditu beteko, baldin eta aldi horretan gokiak badira.

IV. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

47. artikulua. Erantzukizuna

Bat. Kooperatibak bere oraingo eta etorkizuneko ondare guztiarekin erantzungo du zor sozialengatik, hezkuntza eta kooperatiba sustapenerako kontribuzioari eta interes publikoko beste helburu batzuei dagokiona salbuetsita, zeren eta arlo horietan bere xedeak betetzeko hartutako betebeharren erantzule baino ez baita izango.

Bi. Bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo zor sozialengatik. Zor horiengatik duten erantzukizuna izenpetu dituzten kapital sozialerako ekarpenetara mugatzen da.

Hiru. Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja eman aurretik Kooperatibak egin zituen zorrengatik.

Bazkideek sozietate kooperatiboarekin kontratuak edo betebeharrak berariaz eta espresuki sinatu badituzte eta kontratu eta betebeharrak ez badira bazkideak bazkide izateari uzten dionean azkentzen, baja hartu ondoren ere izango dute horiei erantzuteko erantzukizuna.

48. artikulua. Kapital soziala

Bat. Bazkideek kapital sozialari egiten dizkieten ondare ekarpenek –izan nahitaezkoak edo izan borondatezkoak– osatuko dute kooperatibaren kapitala. Ekarpen horiek honelakoak izan daitezke:

- a) Baja kasuan, dirua itzultzeko eskubidea duten ekarpenak. Denak, b) atalekoak izan ezik.
- b) Itzultzeari baldintzarik gabe uko egin dakiekeen ekarpenak. Uko egiteko erabakia nahitaezko ekarpenetarako bakarrik har dezake Kontseilu Errektoreak, eta betiere neurri horrek eragin diezaiokeen bazkideren bat atera aurretik.

Itzulketa eskubidea duten ekarpenak, baja kasuan, Kooperatibak baldintzarik gabe itzultzeari uko egin diezaiokeen ekarpen bihurtzeko, edo alderantzizko eraldaketarako, Estatutu Sozialak aldatzeko erabakia hartu beharko da. Ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du, eta baja justifikatutzat joko da.

Bi. Kooperatibaren gutxieneko kapital soziala 100.000 eurokoa dela zehazten da.

Hiru. Kapital sozialerako ekarpenak partaidetza libreta edo kartilla izendunen bidez egiaztatuko dira, eta, hala badagokio, ondoz ondoko ekarpen edo eguneratzeak eta bazkideari egotzitako galerengatik egindako kenkariak jasoko dituzte.

Lau. Kapital sozialerako ekarpenak legezko monetan egingo dira, baina ondasun eta eskubideetan ere egin ahal izango dira. Kasu horretan, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du ekarpenon balioa, horretarako izendatutako aditu independente batek edo batzuek txostena egin ondoren.

Txosten horretan ekarpenaren ezaugarriak eta balioa jasoko dira, bai eta balio hori kalkulatzeko erabilitako irizpideak ere.

Bost. Bazkideek –bazkide laguntzaileak salbu– ezin izango dute kapital sozialaren herena baino ekarpen handiagoa eduki.

49. artikulua. Nahitaezko ekarpenak

Bat. Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpena desberdina da harreman sozietarioaren arabera. Hona hemen kuantifikazioa:

Lanaldi osoko bazkide langile mugagabeak (lanaldiaren %100):	5.600 €
Lanaldi partzialeko bazkide langile mugagabeak:	
a) lanaldi osoaren %75 edo gehiagoko lanaldia, baina %100 baino gutxiagokoa:	4.190 €
b) lanaldi osoaren %75etik beherako lanaldia:	3.130 €
Lanaldi osoko iraupen jakineko bazkide langileak:	2.675 €
Lanaldi partzialeko iraupen jakineko bazkide langileak:	
a) lanaldi osoaren %75 edo gehiagoko lanaldia, baina %100 baino gutxiagokoa:	2.095 €
b) lanaldi osoaren %75etik beherako lanaldia:	1.590 €
Bazkide laguntzaile diren pertsona fisikoak:	1.070 €
Bazkide laguntzaile diren pertsona juridikoak:	1.070 €

Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide berrientzako hasierako nahitaezko ekarpena.

Ekarpen horren %25 gutxienez izenpetzen den unean ordaindu beharko da, %50 bi urtean, %75 hiru urtean eta lau urtean %100 nahitaez.

Bi. Bazkide izateari eusteko nahitaezko gutxieneko ekarpena Bat atalaren arabera ezarritako hasierako nahitaezko ekarpenaren %75 izango da.

Bazkide baten kapital sozialerako ekarpena gutxieneko nahitaezko ekarpenaren azpitik geratzen bada, hark beharrezko ekarpena egin beharko du zenbateko horretara iritsi arte, gehienez urtebeteko epean, eskatzen zaionetik zenbatzen hasita.

Hiru. Era berean, Batzar Nagusiak nahitaezko ekarpen berriak egitea erabaki ahal izango du, bazkide mota bakoitzaren zenbatekoa eta ordaintzeko epeak eta baldintzak zehaztuz. Ados ez dagoen bazkideak baja hartu dezake, eta justifikatutzat joko da. Lehendik zeuden borondatezko ekarpenek nahitaezko ekarpen berriak estali ahal izango dituzte, bazkideak hala nahi izanez gero.

Lau. Eskatutako ekarpenak ordaintzeko berandutzarik badago bazkideren baten aldetik, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera, kooperatibari legezko interesa ordaindu eta berandutzaren ondorioz egindako kalteen eta galeren ordaina eman beharko dio. Bazkideak bere egoera zuzentzeko agindua jaso eta hurrengo hirurogei egunetan ez badu zuzendu:

- Bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpenaz edo gutxieneko nahitaezko ekarpenaz ari bagara, nahitaezko baja eman ahal izango zaio.
- Gainerako kasuetan, Kooperatibatik kanporatu ahal izango dute.

50. artikulua. Borondatezko ekarpenak

Bat. Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du bazkideek kapital sozialari borondatezko ekarpenak egitea onartzea ala ez. Horretarako, gutxienez, honako kontzeptu hauen baldintzak zehaztuko ditu, eta nahitaezko ekarpenenak baino onuragarriagoak izan daitezke:

- Ordaintzeko epea
- Interes tasa
- Eguneratzea
- Itzulketa
- Eskualdagarritasuna

Bi. Kontseilu Errektoreak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, ordainsarien mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatutakoaren arabera.

51. artikulua. Ekarpenen interesa

Bat. Batzar Nagusiak zehaztuko du bazkideek kapital sozialera egindako nahitaezko nahiz borondatezko ekarpenengatik sortu beharreko interesa. Interes hori ezin izango da diruaren legezko interesa baino handiagoa izan, horiek eguneratzeko aukerari kalterik egin gabe.

Bi. Kapital sozialerako ekarpenek ez dute interesik sortuko galerak gertatu eta horiek osorik edo zati batean ordaintzeko erabilera askeko erreserbarik ez dagoen ekitaldietan.

52. artikulua. Ekarpenak eguneratzea

Bat. Kooperatibaren balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzat xedatutako modu eta baldintza berberetan eguneratuko da.

Bi. Balantzearen erregulazioaren ondorioz ateratzen den gainbalioa ekitaldi batean edo gehiagotan erabiliko da, lehenik, dauden galerak konpentsatzeko, eta, gainerakoa, halakorik balego, Batzar Nagusiaren erabakiz eta hark zehaztutako zenbatekoetan, kapitala eguneratzeko edo erreserbak handitzeko, izan nahitaezkoak izan borondatezkoak.

53. artikulua. Ekarpenen transmisioa

Bat. Ekarpenak *inter vivos* egintzen eta *mortis causa* oinordetzaren bidez eskualda daitezke.

Bi. *Inter vivos* egintzen bidez; bazkideen artekoak, hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenak barne, honako arau hauen arabera:

- a) Bazkide izateko konpromisoa hartu duen pertsonari eskualdatzeko baldintza izango da hura egiazki bazkide izateko onartzea.
- b) Bazkide eskualdatzailearen ekarpena ezin da une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpena baino txikiagoa izan.
- c) Eskualdatutako ekarpena ezin izango du erabili eskuratzailleak hasierako nahitaezko ekarpena eta sarrera kuota estaltzeko.
- d) Adostutako eskualdaketak Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaizkio, berretsi, kontrolatu eta erregistratu ditzan.

Titularren bajaren ondoren, Kooperatibak itzultzea ukatu duen ekarpenak badaude, bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpenak baja hartu duen bazkidearen ekarpenak eskuratuz egin beharko dira. Eskualdaketa hori itzulketa eskaeren antzinatasunaren arabera egingo da, eta data bereko eskaeren kasuan, ekarpenen zenbatekoaren arabera banatuko da.

Hiru. *Mortis causa* oinordetzaren bidez, kausadunei, bazkideak badira eta eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, bazkideztat onartu ondoren, heredatzen duenak heriotza gertatu eta hurrengo hiru hilabeteko epean eskatuta.

Lau. Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inongo eskubiderik izango ez kooperatibaren ondasunen gainean ez bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen gainean, biak ala biak ezin enbargatuzkoak baitira. Horrek guztiak ez die kalterik egingo hartzekodunak bazkideari dagozkion itzulketen eta interesen gainean balia ditzakeen eskubideei.

54. artikulua. Ekarpenak itzultzea

Bat. Bazkide izaera galtzen den kasu guztietan, bazkide horrek edo haren kausadunek beren ekarpenak itzultzeko eska dezakete. Hori guztia, Estatutu Sozial hauetan ezarritakoaren arabera itzulketa ukatu ahal izatea alde batera utzi gabe.

Itzulketa sistemak arau hauei jarraituko die:

- a) Kontseilu Errektoreak ekarpenak itzultzeko eskaera onartzea erabakitzen badu, erabaki hori hartzen den unetik hasi eta gehienez bost urteko epean itzuli beharko dira ekarpenok, edo urtebeteko epean, baldin eta bazkidearen heriotzagatik eskatu bada itzulketa. Kooperatibaren finantza egoera eta bajaren inguruabarrak kontuan hartuta, Kontseilu Errektorearen eskumena da itzulketa zehaztea, kapital soziala murrizteko erabakiaren kasuan izan ezik, horren eskumena Batzar Nagusiarena baita.
- b) Kontseilu Errektoreak erabakitako itzulketak eskaeren antzinatasunaren arabera egin behar dira.
- c) Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa baja gertatzen den ekitaldiaren itxierako balantzearen arabera ebaluatuko da, eta aipatu bajaren datan kalkulatu da.
- d) Kooperatibak dirua itzultzea erabaki duen ekarpenetan, itzultzeko dauden zenbatekoek diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea emango dute gutxienez, baina ezin izango dira eguneratu.
- e) Baja justifikatua denean, Estatutu Sozial hauetan ezarritakoaren arabera, edo heriotzagatik, ez da ekarpenen gaineko kenkaririk egingo. Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak kenkari bat erabaki ahal izango du bazkidearen nahitaezko ekarpenen likidazio zenbatekoaren gainean:
 - %30erainokoa, kanporatze kasuan edo justifikatu gabeko borondatezko baja kasuan, eta gutxieneko iraunaldia betetzen ez bada.
 - %20erainokoa, justifikatu gabeko borondatezko edo nahitaezko baja kasuetan.
- f) Ekarpenen itzulketari uko egitea erabakitzen bada, une horretatik aurrera eta itzulketa ukatu zaion ekarpenen bat mantentzen den bitartean, ez da interesik sortuko bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenengatik, eta bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpenak titularrek baja eman ondoren itzultzeari uko egin dioten ekarpenak eskuratuz egingo dira.

Bi. Kontseilu Errektoreak baimena eman ahal izango du jarduera kooperatibizatua edozein kausa edo arrazoiengatik murrizten duten bazkideen kapital sozialerako ekarpenen zati bat itzultzeko, dela behin-behinekoa, dela behin betikoa. Kasu horretan, Batzar Nagusiaren erabakiak bazkide bakoitzari itzuli beharreko zenbatekoa zehaztu beharko du, jarduera kooperatibizatuaren murrizketa mailaren, behin-behinekotasunaren (gutxienez 2 urte) eta behin betiko murrizketaren arabera. Zein epetan egingo den ere zehaztu beharko du.

Hiru. Batzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak proposatuta, bazkideen kapital soziala murrizteko erabakiak hartu ahal izango ditu, egokitzat jotzen dituen zenbatekoen arabera. Nolanahi ere, bazkideek kooperatibako bazkide mota bakoitzarentzat indarrean dauden nahitaezko gutxieneko ekarpenei eutsi beharko diete. Kasu horretan, Batzar Nagusiak zehaztuko du bazkide bakoitzari itzuli beharreko zenbatekoa eta itzultzeko epea.

Lau. Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uko egin ahal izango dio nahitaezko ekarpenak itzultzeko edozein eskaerari tartean arrazoi ekonomiko eta finantzarioak daudenean; zehazki, kooperatiban baja emateko eskaeraren aurreko ekitaldiko negozio zifraren zenbateko garbiaren %2tik gorako soberakin negatiboa dagoenean galdu-irabazien kontuan.

55. artikulua. Sarrera kuotak

Bat. Batzar Nagusiak, urtero, bazkide berriek hasierako nahitaezko ekarpenarekin batera ordaindu beharko duten sarrera kuotaren zenbatekoa zehaztuko du. Kuota horren zenbatekoa ezingo da izan une bakoitzean indarrean dagoen bazkide mota bakoitzaren hasierako nahitaezko ekarpenaren %25 baino handiagoa.

Bigarren Mailako Bogan Kooperatibatik, Bigarren Mailako Bogan Kooperatiba osatzen duten kooperatibetatik edo kooperatiba horien partaidetza duten kooperatibetatik datozen bazkideek ez dute sarrera kuotarik ordaindu beharko, baldin eta aipatutako kooperatiba horietakoren batean sarrera kuota ordainduta badaukate dagoeneko.

Bi. Sarrera kuotak ezin dira itzuli eta ez dira kapital sozialean sartuko, eta Nahitaezko Erreserba Funtsera zuzenduko dira.

56. artikulua. Beste finantzaketa batzuk

Bat. Kontseilu Errektoreak proposatu ahal izango du Batzar Nagusian onartzea bazkideek epe horretan ordaindu beharko dituzten aldizkako kuotak, eta kooperatibaren diru sarrerak izango dute xede.

Bi. Kooperatibak, dagozkion erabakiak hartu ondoren, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean xedatutako edozein finantzaketa modalitatetara jo ahal izango du.

57. artikulua. Soberakin garbiak

Bat. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza sozietateentzat ezarritako kontabilitate arauak eta irizpideak aplikatuko dira, kooperatiba sozietateentzat berariaz arautzen direnean izan ezik.

Bi. Hauek izango dira partida kengarriak:

1. Kudeaketa kooperatiborako entregatutako ondasunen zenbatekoa, merkatuko prezioen balorazioa gainditzen ez duena.
2. Bazkide langileen lan aurrerakinen zenbatekoa, zeina, guztira, ez baita izango Kooperatibaren jardura sektorerako zonaldeko ordainsari normalak baino handiagoa.
3. Kapital sozialari egindako ekarpenengatik, partaidetza bereziengatik eta kapital sozialean sartu gabeko prestazio eta finantzaketengatik sortutako interesak.
4. Legez baimendutako amortizazioak.
5. Kooperatibaren funtzionamendu egokirako beharrezko gastuak.
6. Indarrean dauden kontabilitate arauak ondorio berberetarako onartutako beste edozein kenkari.

58. artikulua. Soberakin eskuragarrien banaketa

Bat. Soberakin garbiak, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko zenbatekoak eta eskatutako zergak kendu ondoren, soberakin erabilgarriak izango dira.

Bi. Batzar Nagusiak honako arau hauen arabera banatuko ditu soberakin erabilgarriak:

- a) Gutxienez %30 Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuziora bideratuko da, eta gutxienez %20 Nahitaezko Erreserba Funtsera eta %10 Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuziora. Hezkuntzarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuziora bideratu beharreko gutxieneko ehuneko erdira murriztu ahal izango da, Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren %50era iritsi arte.
- b) Gainerakoa borondatezko erreserba funts banaezinetara bideratuko da. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak erabakiko du funts horiek zertarako erabiliko diren, Kooperatibaren xedearekin, helburu sozialekin eta nagusi diren beharrezanekin bat etorritz.

59. artikulua. Nahitaezko funtsak

Bat. Nahitaezko Erreserba Funtsa, Kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzera bideratua; ezin da bazkideen artean banatu.

Aurreko artikuluan aurreikusitako hornidurez gain, funts honetara bideratuko dira, nahitaez, bazkideak baja hartzen duenean ekarpenari kentzen zaion kopurua eta sarrera kuotak.

Bi. Hezkuntza eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa, zeina balantzearen pasiboan kontabilizatuko baita, beste partida batzuetatik bereizita, eta enbargaezina baita. Batzar Nagusiak ezartzen dituen oinarrizko ildoak aplikatuz, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean xedatutako helbururen bat betetzen duten jardueretara bideratuko da.

Hezkuntza eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuziora, aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere bideratuko da nahitaez.

Hezkuntza eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzio horren zenbateko bat Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez bada, irabazi-asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, soberakinaren banaketa onartu zen ekitaldiaren hurrengo ekitaldian, indarrean dagoen legeria kooperatiboan kontribuzio horretarako ezarritako interes publikoko helburuetara bidera dadin.

60. artikulua. Borondatezko funts banaezinak

Kooperatibak, Batzar Nagusiak aurrez hala erabakita, komenigarritzat jotzen dituen nahi beste borondatezko erreserba funts banaezin era ditzake.

61. artikulua. Galerak egozte

Bat. Batzar Nagusiak, galerak egozteko, honako arau hauei jarraituko die:

- a) Balantzea erregularizatzeko funtsari, hala badagokio, ahal den zenbatekoa egotziko zaio.
- b) Borondatezko erreserba funtsari, halakorik balego, zenbatekoaren zati bat edo zenbateko osoa.
- c) Nahitaezko erreserba funtsari, gehienez ere, soberakin positibodun azken bost urteetan legez nahitaezkoak diren funtsetara bideratutakoaren batez besteko ehuneko egotzi ahal izango zaio. Hala ere, baldin eta Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago bada, galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da ehuneko horretatik gorako zenbatekoa.
- d) a), b) eta c) puntuen arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie. Galerak indibidualizatzeko erabiliko den parametroa jarduera kooperatibizatuan parte hartzearena izango da, eta irizpide hauen arabera neurtuko da:

- Bazkide laguntzaile diren pertsona fisiko edo juridikoentzat: egiten duten jarduera kooperatibizatuari dagokion ehuneko, zeina galerak sortu ziren urteko boto portzentajearen finkatzen baita.
- Bazkide langileentzat: gainerakoak, bazkide bakoitzak egiten duen jarduera kooperatibizatuaren arabera. Hori neurtzeko, kontuan hartzen da ekitaldian zehar jasotako lan aurrerakinen zenbateko osoan izandako lan aurrerakina.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak zuzenean edo kapitalerako ekarpenak murriztuz ordainduko dira, onartzen diren ekitaldiaren barruan.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du ekitaldi bateko galera guztiak edo batzuk kontu berezi batera egozte, banakako esleipenik gabe, etorkizuneko emaitza positiboen eta, hala badagokio, balantze erregularizazioen kargura amortizatzeko, bost urteko gehieneko epearen barruan.

Denbora tarte horretan baja diren bazkideei konpentsatu gabe gelditu den galeren zatitik dagokiena egotziko zaie.

V. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

62. artikulua. Dokumentazio soziala

Bat. Kooperatibak honako liburu hauek eramango ditu, behar bezala eta egunean:

- a) Bazkideen erregistroa
- b) Kapital sozialerako ekarpenen erregistroa
- c) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen aktak, eta, halakorik badago, Zaintza Batzordearenak
- d) Inbentarioak eta balantzeen liburuak
- e) Egunerokoa
- f) Beste lege xedapen batzuek eskatutakoak

Bi. Liburuak eta kontabilitateko gainerako erregistroak koadernatuta eta foliatuta joango dira. Nahitazko liburuak osatzeko prozedura informatikoen edo elektronikoen bidez egindako idazpenak eta oharrak ere baliozkoak dira. Liburu horiek, euskarri elektronikoen edo paperean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatuko ditu, ekitaldia itxi eta sei hilabeteko epean.

Bat zenbakiko c) letran zehazturiko liburuak legeztatzen ez diren bitartean, bilera agiri bakoitzaren kopia egiaztatua bidali beharko da Euskadiko Kooperatiben Erroldara, onartu eta bi hilabeteko epean.

63. artikulua. Kontabilitatea

Bat. Kooperatibak kontabilitatea ordenatua eta bere jarduerarako egokitua eramango du, merkataritza legeriaren arabera, kooperatibentzako berariazko erregulaziorik ezean, eta araubide ekonomiko kooperatiboaren berezitasunak errespetatuz.

Bi. Ekitaldia ixtean, Kontseilu Errektoreak kooperatibaren urteko kontuak egin beharko ditu. Kontu horietan, balantzea, galdu-irabazien kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbiaren aldaketen egoera orria eta diru fluxuen egoera orria sartuko dira, aplikatzekoa zaion finantza informazioari buruzko arau esparruarekin bat etorritik, eta sozietatearen ekitaldia ixten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean.

Kontseilu Errektoreak kudeaketa txostena ere aurkeztuko du ekitaldiko urteko kontuekin batera, merkataritza legeriari jarraituz, eta, hala dagokionean, informazio ez-finantzarioaren egoera, kudeaketa txostenaren barruan edo beste txosten batean jasota.

64. artikulua. Kontu auditoretza

Bat. Kooperatibak kanpo auditoretzaren pean jarriko ditu urteko kontuak eta kudeaketa txostena, nahitazkoa denean edo Euskadiko Kooperatiben Legeak kontuak kanpoko auditoretzapean jartzeko betebeharra aurreikusten duen kasuren bat gertatzen denean.

Bi. Auditoreak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, eta, bestela, Kontseilu Errektoreak. Azken kasu horretan, izendapenaren berri emango du egiten den lehenengo Batzar Nagusian.

65. artikulua. Urteko kontuen gordailua

Kontseilu Errektoreak urteko kontuak eta, dagokionean, kudeaketa txostena eta kontuen auditoritzarena ere aurkeztuko ditu, onartu eta hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan gordailutzeko. Urteko kontu horiek eta kudeaketa txostena kontseilukide guztiek sinatu beharko dituzte, eta baten batek sinatu ezean, arrazoia berariaz adierazi beharko da.

66. artikulua. Letradu aholkularia

Bat. Kontu Auditoretzaren Legean edo haren garapen arauetan xedatutakoaren arabera urteko kontuak kanpo auditoretzapean jartzera behartuta dauden kooperatibek, Kontseilu Errektorearen erabakiz, letradu aholku emaile bat izendatu beharko dute, Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartu eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen akordioak sinatuko dituenak.

Erabaki horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu/aholkulariaren irizpena duten akordio horiek akta liburuan jasota daudela.

Bi. Zabarkeria profesionala egon bada, letradu aholkulariak erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, haren bazkideen eta bazkide ez diren hirugarrenen aurrean.

Hiru. Funtzio hori betetzea bateraezina izango da zuzendari izatearekin edo Kontseilu Errektoreko zein Zaintza Batzordeko kide izatearekin.

Lau. Kooperatibaren eta letradu aholkulariaren arteko harremana honako hau izan daiteke: profesional liberal gisa zerbitzuak alokatzekoa, lan kontratu bati lotutakoa edo sozietate arlokoa, kooperatibako bazkide langile gisa.

VI. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

67. artikulua. Kooperatiba desegiteko arrazoiak eta erabakia

Bat. Honako hauek izango dira Kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Helburu soziala gauzatzeko ezintasun nabarmena.
- b) Organo sozialak gelditzea edo jarduerarik gabe uztea, edo jarduera kooperatiboa justifikaziorik gabe etetea, bi kasuetan bi urtez jarraian.
- c) Bazkide kopurua kooperatiba eratzeke legez behar dena baino txikiagoa izatea, hamabi hilabete baino luzarago.
- d) Kapital soziala ezarritako gutxieneko zenbatekotik behera eta hamabi hilabeteko epean buelta eman gabe egotea.
- e) Bateratzea edo guztizko bereizketa.
- f) Kooperatibaren likidazio fasea irekitzea konkurtso prozeduran.
- g) Batzar Nagusiaren erabakia, horretarako aurreikusitako gehiengoarekin.
- h) Legeak ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi. Desegiteko erabakia gehiengo arruntez hartuko da, aurreko ataleko e) eta g) kasuetan izan ezik, kasu horietan horretarako adierazitako gehiengo beharko baita.

Hiru. Lehen ataleko e) eta g) letretako kasuak alde batera, beste edozein arrazoi gertatzen bada, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du bi hilabeteko epean, eta Zaintza Batzordeak, halakorik badago, edo edozein bazkidek eskubidea izango du Kontseilu Errektoreari deialdia egiteko eskatzeko.

Kontseilu Errektoreak eta interesa duen edozeinek Kooperatibaren desegitea judiziala eskatu ahal izango du, hauetako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Batzar Nagusirako deialdirik ez egitea.
- b) Batzar Nagusia biltzen ez bada estatutuetan jasotako epean.
- c) Batzar Nagusia bildu bai, baina desegiteko erabakia hartu ezin izan badu.
- d) Batzar Nagusia bildu, eta desegitea ez beste erabakiren bat hartu badu.

Lau. Desegiteko erabakia edo desegitea adierazten duen ebazpen judiziala Kooperatibaren Erregistroan inskribatuko da, eta, horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta sozietatearen egoitzaren lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da.

68. artikulua. Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa Euskadiko Kooperatibaren abenduaren 20ko 11/2019 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan xedatutakoaren arabera egingo da.

69. artikulua. Sozietatearen ondasunak esleitzea

Bat. Sozietatearen ondasunak ezin izango dira esleitu edo banatu, harik eta sozietatearen zorrak oso-osorik ordaindu arte, zor horiek kontsignatu arte edo mugaeguneratu gabeko kredituen ordainketa ziurtatu arte.

Bi. Aurreko atalean zerrendatutako zorrak ordaindu ondoren, sozietatearen gainerako ondasunak hurrenkera honetan esleituko dira:

- a) Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko Beste Helburu batzuetarako Kontribuzioa Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
- b) Bazkideei kapital sozialari egindako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, hala badagokio, eguneratuta, borondatezko ekarpenetatik hasita eta nahitaezko ekarpenekin jarraituz.
- c) Estatutu bidez edo Batzar Nagusiaren erabakiz bana daitezkeen borondatezko erreserba funtsetan daukaten partaidetza itzuliko zaie bazkideei. Funts horiek Estatutu Sozialetan edo akordio horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira, eta, halakorik ezean, bazkide bakoitzak azken bost urteetan kooperatibarekin egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzioan, edo, epe hori baino iraupen laburragoa duten kooperatibentzat, eratu zireneko data kontuan hartuta.
- d) Bai Nahitaezko Erreserba Funtsaren bai Kooperatibaren ondasun likidoaren soberakina, halakorik balego, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.

Hiru. Estatutu Sozial hauen arabera itzultzeari uko egiteko modukoak diren ekarpenak itzultzen ez diren bitartean, baja hartu duten eta itzulketari dagokionez kooperatibaren ukoa jaso duten titularrek sozietatearen ondasunaren esleipenean parte hartuko dute, Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioaren ondoren, eta, Estatutu Sozialetan bestelakorik xedatu ezean, gainerako ekarpenak itzuli aurretik.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA. Arbitraje kooperatiboa

Kooperatiba honen eta beste kooperatiba baten edo batzuen artean edo kooperatiba honen eta kooperatibako bazkideen artean harreman kooperatibizatuen esparruan –baita likidazioaldian ere– sortzen diren auziak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren zuzenbideko arbitrajearen menpe jarriko dira nahitaez, Kooperatibaren barne bideak agortu ondoren, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bitartez, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurei buruz duen Erregelamenduaren arabera (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 34. zk., 2012ko otsailaren 16koa), edo etorkizunean hura ordeztuko duenaren arabera. Aldeek berariaz hitzematzen dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela.

BIGARRENA. Delituak prebenitzeko eredia eta segimendua egiteko mekanismoak

Bat. Kooperatibak Delituak Prebenitzeko Eredu bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.

Bi. Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onartuko du, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; kudeaketa eredia; salaketa sistema; zehapen araubidea; egiaztapen sistema; aldizkako berrikuspena eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.

Hiru. Delituak prebenitzeko eredia gainbegiratzea, funtzionatzea eta betetzea ekimenerako eta kontrolerako botere autonomoak izango dituen kooperatibako organo edo figura espezifiko baten esku utziko da.

HIRUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak

Bat. Kooperatiba indarkeriarik gabeko eremu bat izango da, non emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioak errespetatuko diren.

Bi. Kooperatibak sexu jazarpenarako eta sexuan oinarritutako jazarpenarako protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.

Hiru. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide langile guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharrez jabetu daitezzen.

LAUGARRENA. Bigarren mailako kooperatiban integratzea

Bat. Kooperatiba hau Bogan Gizarte Ekimeneko Sozietate Kooperatiboko bazkidea da. Bigarren mailako kooperatiba bat da, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroko 2755. folioko 2. idazpenean inskribatuta dago.

Bi. Kooperatiba honek Bogan SCISren alde laga ditu Boganen Estatutu Sozialetan jasotzen diren ahalmenak, xedapen honen arabera estatutu mailara iristen direnak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

BAKARRA. Zaintza Batzordea

Estatutu Sozial hauetan Zaintza Batzordeari buruz jasotzen den erregulazioa organo sozial hori legezko xedapen bidez nahitaezkoa denean bakarrik aplikatuko da.

Zaintza Batzordea kooperatiba ehun bazkide edukitzeraz iristen denean eta, beraz, Legez horretara behartuta dagoenean aukeratuko da. Une horretan Estatutu Sozial hauetan horri buruz jasotako aipamenak aplikatuko dira.

Kopuru hori lortzen ez den bitartean, ulertuko da Estatutu Sozial hauetan horri buruz egiten diren aipamenak ez direla jartzen.